

**“12-16 urte bitarteko  
gaztetxoentzako Gazte Txoko  
proiektua.  
Gune euskalduna sortzeko  
aitzakia”**

Legazpi, 2002ko uztaila

## AURKIBIDEA

1. Sarrera.
2. **Gazteen ezaugarriak.**
  - 2.1. Legazpiren datu orokorrak.
  - 2.2. Legazpiko gazteen datuak.
  - 2.3. Gazteen bestelako ezaugarriak.
  - 2.4. Gazteak gaur egun eta hemen.
3. **Gazteen iritzi eta jarrerak.**
  - 3.1. **Siadecoren galdeketa.**
    - 3.1.1. Denbora librea.
    - 3.1.2. Gazte Txokoa ekipamendu baten inguruan.
  - 3.2. **Euskararen inguruko inkesta.**
4. **Kokapen teorikoa.**
  - 4.1. **Aisia.**
    - 4.1.1. Gurasoak eta aisia.
    - 4.1.2. Gazteak eta aisia.
  - 4.2. **Gazteak eta Euskara.**
5. **Gazte Txokoa proiektua.**
  - 5.1. **Proiektuaren eragileak.**
  - 5.2. **Helburuak.**
    - 5.2.1. Helburu nagusia.
    - 5.2.2. Berariazko helburuak.
  - 5.3. **Gestioa eta funtzionamendua.**
    - 5.3.1. Kudeaketa.
    - 5.3.2. Funtzionamendua.
  - 5.4. **Euskararen erabilera sustatzeko oinarriak.**
    - 5.4.1. Oinarri teorikoak.
    - 5.4.2. Oinarri teknikoak.
    - 5.4.3. Oinarri metodologikoak.
    - 5.4.4. Oinarri programatikoak.
    - 5.4.5. Topagunea.
  - 5.5. **Ebaluazioa.**
6. **Eranskinak.**

## 1. SARRERA.

Orain dela pare bat urte herriko guraso-talde esanguratsuak eskari bat aurkeztu zuen udaletxean: gaztetxoei topagune bat eskaintzea. Gurasoen aspaldiko kezka da hurrek denbora librean zertan ematen duten jakitea. Familia girotik urruntzen direnean eta 11-12 urterekin gurasoekin irteteari uzten diotenean, kuadrilla osatu eta kalean igarotzen dituzte asteburuko ordu gehientsuenak.

Ikasturtean zehar, astean zehar, makina gauza dute egiteko: eskolako lanak, klase partikularrak, kirola, musika ..... baina asteburua iristean, zer egiten dute gaztetxo horiek? Herrian ez dago gazte horientzat leku egokirik, ezin dira tabernetan sartu, dagoeneko ez dute jolas egiten eta orduak eta orduak ematen dituzte elkartu eta hitz egiten, besterik gabe. Gaztetxo horiek aitortzen dutenez, zinea karestia da eta asteburuak aspergarriak egiten zaizkie, denbora non eta zertan eman ez dakitela.

Eskaria aintzakotzat hartu zuen udalak eta eskaerari erantzungo ziola hitz eman zuen. Erabaki horren ondoren etorri da egoeraren azterketa, balorazioa, hausnarketa,..... eta honako lan hau ere bai.

## 2. GAZTEEN EZAUGARRIAK.

### 2.1. Legazpiren datu orokorrak.

- Datu demografikoak.

Legazpi, Gipuzkoaren hego-ekialdean dagoen udalerrria da. Herri ertaina eta industrialia.

1996ko zentsoaren arabera 9.278 biztanle ditu Legazpik baina esan beharra dago biztanle-kopuruak behera egin duela azken 20 urteotan eta horren arrazoi nagusia industrian egon den berregituraketa izan da. Hona hemen biztanleriaren bilakaera 1981-2001:

|            | 1981   | 1986   | 1991  | 1996  | 2001* |
|------------|--------|--------|-------|-------|-------|
| Biztanleak | 10.659 | 10.301 | 9.892 | 9.278 | 8.789 |

\* udal-errolatik ateratako datua.

- Datu demolinguistikoak.

1996ko zentsoaren arabera honako hau da Legazpiren egoera hizkuntzari dagokionez:

- biztanleriaren hizkuntza-gaitasuna, 1996.  
(5 urtetik gorako biztanleria)

|            | Guztira |       | euskaldunak |       | Elebidun hartzaileak |       | Erdaldun elebakarrak |       |
|------------|---------|-------|-------------|-------|----------------------|-------|----------------------|-------|
|            | Kop.    | Prop. | Kop.        | Prop. | Kop.                 | Prop. | Kop.                 | Prop. |
| Biztanleak | 8.925   | %100  | 4.891       | %54,8 | 955                  | %10,7 | 3.079                | %34,5 |

- hizkuntza-gaitasunaren bilakaera, 1981-1996.  
(5 urtetik gorako biztanleria)

|         | Euskaldunak |      |      |      | Elebidun hartzaileak |      |      |      | Erdaldun elebakarrak |      |      |      |
|---------|-------------|------|------|------|----------------------|------|------|------|----------------------|------|------|------|
|         | %           |      |      |      | %                    |      |      |      | %                    |      |      |      |
|         | 1981        | 1986 | 1991 | 1996 | 1981                 | 1986 | 1991 | 1996 | 1981                 | 1986 | 1991 | 1996 |
| Legazpi | 38,9        | 45,9 | 50,0 | 54,8 | 16,4                 | 13,9 | 12,2 | 10,7 | 44,8                 | 40,2 | 37,8 | 34,5 |

Orain arteko datuak ezagutzari dagozkionak dira. Euskararen erabilerari dagokionez, joan den 2001eko azaroaren 7 eta 10ean SEI Elkarteak egin zuen kale erabileraren neurketaren emaitzak ditugu. Hona hemen euskararen erabileraren datuak Legazpin:

Neurtutako hiztun kopurua: 2.751

Euskaraz: 567

Gaztelaniaz: 2.184

Euskararen erabilera: %20,61

Bestalde, adin talde bakoitzaren erabilerak honako emaitzak eman ditu:

|                       | Euskaraz | Erdaraz | Euskaraz % |
|-----------------------|----------|---------|------------|
| Haurrak (2-14 urte)   | 256      | 493     | 34,18      |
| Gazteak (15-24 urte)  | 58       | 234     | 19,86      |
| Helduak (25-64 urte)  | 196      | 1200    | 14,04      |
| Adinekoak (> 65 urte) | 55       | 249     | 18,09      |

Ezagutzaren eta erabileraren datuak alderatuz gero, garbi dago zein alde dagoen batetik bestera; horrela, 1996ko zentsoaren arabera biztanlearen %54,8 euskaldunak diren bitartean euskararen erabilera Legazpin ez da %21era iristen.

## 2.2. Legazpiko gazteen datuak.

- Datu demografikoak.

Udal erroldaren arabera honako datuak ditugu:

|            | 1990ekoak<br>(12 urte) | 1989koak<br>(13 urte) | 1988koak<br>(14 urte) | 1987koak<br>(15 urte) | 1986koak<br>(16 urte) |
|------------|------------------------|-----------------------|-----------------------|-----------------------|-----------------------|
| Biztanleak | 62                     | 60                    | 79                    | 63                    | 93                    |

Baina datu horiek udalerrian erroldatuta daudenen kopuruak dira eta urte naturalak kontuan hartuta. Gazte horiek guztiak ez dira herriko ikastetxeetan ikasten ari eta, alderantziz, hemengo ikastetxeetan badaude kanpoan bizi eta hemen ikasten ari diren gazteak.

Gaztetxoei lan hau burutzeko betearazi zaien euskararen inguruko inkesta ikastetxeen bidez bideratu denez, ikasturteak eta ez urte naturalak hartuko ditugu kontuan, jakinda hala ere, desfase bat dugula hor, hau da, herriko hainbat gazte kanpoan ikasten dutenek ez dute inkesta bete eta, aldiz, hemen bizi ez diren baina hemen ikasten duten zenbait gaztek inkesta bete dute.

Hortaz, lan honetarako, ikastetxeetatik jasotako datuak hartuko ditugu kontuan:

| Ikastetxea | DBH1  |        | DBH2  |        | DBH3  |        | DBH4  |        | Hez.Berez. |        | Guztira    |
|------------|-------|--------|-------|--------|-------|--------|-------|--------|------------|--------|------------|
|            | Nesk. | Mutil. | Nesk. | Mutil. | Nesk. | Mutil. | Nesk. | Mutil. | Nesk.      | Mutil. | Nesk/mutil |
| Ikastola   | 18    | 18     | 24    | 27     | 22    | 24     | 36    | 40     |            |        | 209        |
| Institutua | 12    | 14     | 13    | 19     | 11    | 15     | 15    | 15     | 3          | 1      | 118        |
| Guztira    | 62    |        | 83    |        | 72    |        | 106   |        | 4          |        | 327        |

- Datu demolinguistikoak.

12-16 urte bitarteko gazteak ditugu aztergai eta adin-tarte horren datu demolinguistiko zehatzik ez dugu inon aurkituko.

Ez dugu adin-tarte horren hizkuntza-gaitasunaren inguruko daturik ez eta hizkuntza-gaitasunaren bilakaeraren daturik.

Daukagun datu bakarra eta lan honetarako interesatzen zaigun datua honako hau da: 12-16 urte bitarteko gazteak D ereduan eskolaratuta daude herriko bi ikastetxetan. Beraz, ezagutza behintzat guztiei suposatuko diegu eta guztiak euskaldunak eta elebidun hartzaileak direla esan dezakegu.

Erabilerari dagokionez ez dugu adin-tarte horren erabileraren datu zehatzik. SEI elkarteak egindako neurketan "haurrak" eta "gazteak" bereizi dira eta horien adin-tarteak 2-14 urte eta 15-24 urte izan dira, hurrenez hurren. Aztergai ditugun gazteak bi talde horietan sartzen dira 12-14 urtekoak "haurrak" taldean eta 15-16 urtekoak "gazteak" taldean. Ikusten denez, "haurrak" taldea da erabilera altuena eman duena eta "gazteak" taldean dexente behera egin du erabilerak. Suposatzekoa da 12-14 urteko gazteen arteko erabilera "gazteak" taldeak eman duen emaitzatik gertuago egongo dela "haurrak" taldeak eman duenetik baino.

Beraz, 12-16 urte bitarteko gaztetxo guztiek euskara ongi dakitela suposatu badugu ere (guztiak D ereduan ikasten ari dira) ez gara oso oker ibiliko haien euskararen erabilera SEI elkarteko kale neurketan "gazteak" izeneko adin-taldeak eman duen emaitzetik (%19,86) gertu ibiliko dela esaten badugu.

### **2.3. Gazteen bestelako ezaugarriak.**

12-16 urte bitarteko gaztetxoak nerabezaroan daude eta aldaketa askoren garaia da. Urte horietan aldaketa fisikoak, adibidez, nabarmenak izango dira eta psikologikoki ere aldaketa dextente emango da (autokontzeptua, autoestimua, gizarte-harremanak, lagun eragina,...).

#### 12-13 urte

Aldaketa fisikoek eragin garrantzitsua izango dute psikologikoki eta pentsatzeko, sentitzeko eta jokatzeko moduan eragingo dute. Baina neska eta mutikoek ez dute denbora berean aldaketa fisiko horiek izango; neskak normalean lehenago haziko dira eta mutikoak beranduago. Horrela, 12-13 urteko neskek aldaketa nabariak antzemango dute haien gorputzetan eta mutikoek oraindik lehenago itxurarekin jarraituko dute, salbuespenak salbuespen.

Gurasoek 12-13 urteko gaztetxoengan indarra izaten jarraituko dute baina lagun eragina geroz eta handiagoa izango da. Lagunen onarpena bilatzen du gazteak.

Eskolan ere aldaketak izango dituzte: Lehen Hezkuntzan (DLH) zaharrenak izatetik Bigarren Hezkuntzan (DBH) gaztetxoak izatera pasatuko dira; eskolan eskakizun gehiago, irakasle berriak,... e.a.

Gazte horiek eskuratu duten autonomia handiagoari esker denbora gehiago igaroko dute familiarik kanpo eta haien gizarte-harremanen sarea handitu egingo da.

Lagunen arteko harremanek indarra hartuko dute, sakonagoak eta egonkorragoak izango dira; berdinen taldea eragin handiko taldea izango da.



### 14-16 urte

14-16 urtetarako, oro har, neskek igaro dute nerabezaroko aldaketa fisiko bortitza. Aldiz, adin-tarte horretan mutilak izango dira aldaketa fisikoa emango dutenak.

Adin-tarte honetan indar gehiago hartuko du lan-taldeak eta gazteak familia-girotik urrundu egingo dira. Gurasoen agintea zalantzan jartzen hasiko dira eta arauen aurka egingo dute.

Lagun-taldeak ezarriko du bertako kideen jokabidea, pentsaera, janzkera eta hainbat balore. Gaztearentzat oso inportantea da lagunek diotena, beraz garrantzi handia izango du lagun-taldea zeintzuk osatzen duten eta zein girotan mugitzen den.

#### **2.4. Gazteak gaur egun eta hemen.**

Ikusi dugu 12-16 urte bitarteko zenbait gazte dauden herrian. Badakigu, halaber, gazte horiek aldaketa-aroan murgilduta daudela, nerabezaroa. Orain gure azterketarekin jarraitzeko ezinbestekoa da gazte horien egungo egoera ezagutzea: zein da 12-16 urteko gaztetxoek egungo egoera Legazpin?

Ikus dezagun:

- Derrigorrezko bigarren hezkuntzan eskolarizatuta dauden gazteak dira. Herrian bi ikastetxe daude maila hori eskaintzen dutenak: ikastola eta institutu publikoa.
- Eskolaz kanpoko jarduera nagusia kirola da. Eskolaz kanpo gazte horiek zerbait egiten badute, oro har, kirol-talde batean parte hartzea da: futbola, saskibaloia, eskubaloia eta atletismo dira kirol hedatuenak.

- Adin horretako gazteek denbora libre gehiena kalean ematen dute: erdiguneko parkean batik bat. Aste barruan internet erabiltzeko aukera dute Kultur Etxean, asteburuetan hori ere ez. Gazte-talde batzuk garajeetan (norbaiten gurasoen garajeetan) igarotzen dute neguko asteburu hotz eta aspergarriak. Zinea garestia iruditzen zaie eta film bereziren bat ez bada ez dute probetxuzkoa ikusten horretan dirua gastatzea.
- DBHko bigarren zikloko gazte askok (mutilak batik bat) Errealeko bazkide dira eta hamabostero autobusa hartu eta partidua ikustera joaten dira Donostiara: igande arratsaldea pasatzeko modu bat da.
- Golden dantzalekua. Urretxuko dantzaleku ospetsuan, orain dela 2 urte dantza-saio bereziak eskaintzen hasi zen: igande arratsaldetan 12-16 urte bitarteko gazteei zuzendutako alkoholik gabeko dantza-saioak. Gizarte Zerbitzutik bideratutako proposamenetik abiatu ziren saio horiek honako helburuarekin: drogamenpekotasunaren prebentzio programaren barruan aisialdi osasuntsua (alkoholik gabekoa) eskaintzea gaztetxoei. Herriko zenbait gaztek badute bertara joateko ohitura autobusa edo trenea hartuta; hala ere, ez dira asko eta gehienak neskak dira.
- Bada herrian Sorgin Txulo aisialdi taldea eta udalaren dirulaguntzarekin hainbat ekintza antolatzen ditu 12-16 urteko gazte horiei zuzenduak: Txuri-Urdin Izotz jauregira patinatzerara, Kutxaespazio ikustera, 2-3 eguneko egonaldiak herriko Lakiola aterpetxean, herri-bazkaria jaietan, jolasak, triki-txapelketa uztailean,... e.a. Ekintza puntualak izaten dira.

- Bada herrian bigarren aisialdi talde bat: elizako Erkatz taldea. Talde horretako begiraleak urteko hainbat larunbat arratsaldetan gaztetxoekin elkartzen dira jolasak egiteko baina 9-12 urte bitarteko haurrak izaten dira bertaratzen direnak.

### **3. GAZTEEN IRITZI ETA JARRERAK.**

Herriko gazteei ekipamendua eskaintzeko eskariari erantzun aurretik, Udalak ekipamendu-mota erabaki ahal izateko gazteen iritzi eta jarrerak ezagutzea ezinbestekoa dela erabaki du. Iritzi eta jarrera horiek arlo desberdinen inguruan gainera ezagutu nahi dituela erabaki du Udalak: denbora librearen inguruan, gazte-txoko ekipamenduaren inguruan eta euskararen inguruan.

Hona hemen azterketa desberdinek eman dituzten emaitzak:

#### **3.1. Siadecoren galdeketa.**

Legazpiko udalak Gazte-txokoaren proiektua definitu eta zehazteko, gai jakin batzuei buruz gazteek dituzten iritzi eta asmoak kuantifikatzeko beharra ikusi du. Horrela, 2001eko maiatzean Siadeco ikerketa elkarteari lan zehatza eskatu zion: "udalerriko ikastetxeetan, DBH-n diharduten Legazpiko ikasleen artean, denbora libre eta etorkizuneko Gazte-txoko ekipamendu bati buruzko iritzi-galdeketa kuantitatiboa" egitea.

Ikerketaren fitxa teknikoa:

- Unibertsoa: udalerriko ikastetxeetan DBH-n diharduten gazteak.
- Teknika: ikastetxean bertan eta galdekizun egituratu baten bitartez, ikerketa-xedea den unibertsoari inkesta.
- Landa-lana: informazio bilketa prozesua edo landa-lana 2001eko martxoaren 28 eta 30 bitartean burutu zen eta orotara, 304 galdekizun baliodun jaso ziren.
- Grabaketa: datuak oinarri informatikoan grabatuak eta depuratuak izan dira ACCESS II sistemaren bitartez.
- Ustiaketa: datuak SPSS pakete estatistikoaren bitartez ustiatu dira.

Hauexek dira unibertsoaren ezaugarriak, aldagai soziodemografiko desberdinen arabera:

|               |                           | Abs. | %     |
|---------------|---------------------------|------|-------|
| Ikastetxea    | Haztegi ikastola .....    | 203  | 66,8  |
|               | Olazabal institutua ..... | 101  | 33,2  |
| Maila:        | DBH1 .....                | 78   | 25,7  |
|               | DBH2 .....                | 69   | 22,7  |
|               | DBH3 .....                | 98   | 32,2  |
|               | DBH4 .....                | 59   | 19,4  |
| Adina         | 12 urte .....             | 44   | 14,5  |
|               | 13 urte .....             | 75   | 24,7  |
|               | 14 urte .....             | 87   | 28,6  |
|               | 15 urte .....             | 81   | 26,6  |
|               | 16 urte .....             | 17   | 5,6   |
| Sexua         | Mutila .....              | 161  | 53,0  |
|               | Neska .....               | 143  | 47,0  |
| Guztira ..... |                           | 304  | 100,0 |

Hemen galdera guztiak eta bakoitzaren emaitzak azaltzea luzeegia izango litzatekeenez, gure lanerako erantzun interesgarrienak azalduko ditugu bakarrik. Hala ere, norbaitek interes handia izango balu, Siadeco elkarteak galdeketa horren inguruan Legazpiko udaletxean aurkeztu duen txostenera jo lezake.


### 3.1.1. Denbora librea.

Atal honetan denbora librearen, asoziazionismoaren eta lagunen inguruko galderak egin dira.

- Denbora librearen disponibilitatea: zure denbora libreari buruz esango zenuke...

|   |            | Sexua  |       | Maila            |                  | Guztira |
|---|------------|--------|-------|------------------|------------------|---------|
|   |            | Mutila | Neska | DBH<br>1. zikloa | DBH<br>2. zikloa |         |
| Nahikoa denbora librea dut,<br>astegunetan eta asteburuetan |            | 41,0   | 43,4  | 37,4             | 46,5             | 42,1    |
| Asteburutan denbora librea<br>dut, astegunetan ez           |            | 52,8   | 54,5  | 56,5             | 51               | 53,8    |
| Astegunetan denbora librea<br>dut, asteburutan ez           |            | 5,6    | -     | 4,1              | 1,9              | 3,0     |
| Ez dut denbora librerik, ez<br>astegunetan ez asteburutan   |            | 0,6    | 1,4   | 2,0              | -                | 1,0     |
| Guztira   | %          | 100,0  | 100,0 | 100,0            | 100,0            | 100,0   |
|   | Lagina (n) | 161    | 143   | 147              | 157              | 304     |


#### 1. Grafikoa:



- Denbora librea hobeto betetzeko baldintzak: zer beharko zenuke denbora librea zuk nahiko zenukeen bezala pasatzeko?

|                          |            | Sexua  |       | Maila            |                  | Guztira |
|--------------------------|------------|--------|-------|------------------|------------------|---------|
|                          |            | Mutila | Neska | DBH<br>1. zikloa | DBH<br>2. zikloa |         |
| Denbora libre gehiago    |            | 10,6   | 7,0   | 10,2             | 7,6              | 8,9     |
| Diru gehiago             |            | 10,6   | 1,4   | 7,5              | 5,1              | 6,3     |
| Jarduera gehiago herrian |            | 9,3    | 17,5  | 15,6             | 10,8             | 13,2    |
| Gazteentzako lokal bat   |            | 51,6   | 69,9  | 52,4             | 67,5             | 60,2    |
| Kamol instalazio gehiago |            | 6,2    | 1,4   | 5,4              | 2,5              | 3,9     |
| Ez dut ezer behar        |            | 2,5    | -     | 2,0              | 0,6              | 1,3     |
| Besterik                 |            | 9,3    | 2,8   | 6,8              | 5,7              | 6,3     |
| Guztira                  | %          | 100,0  | 100,0 | 100,0            | 100,0            | 100,0   |
|                          | Lagina (n) | 161    | 143   | 147              | 157              | 304     |

2. Grafikoa:




Galdekizuna erantzun duten gazteen artean %60,2ren ustez, gazteentzako lokal bat edukiz gero euren denbora librea hobeto pasatuko lukete. %13,2k udalerrian jarduera gehiago antola daitezzen eskatzen du (gehiago dira eskaera hori egiten dutenak nesken eta DBH-ko lehenengo zikloko ikasleen artean)

- Denbora librearen erabilera: denbora libre gehiago izango bazenu, zertan erabiliko zenuke?

|                                       | Sexua      |       | Maila            |                  | Guztira |
|---------------------------------------|------------|-------|------------------|------------------|---------|
|                                       | Mutila     | Neska | DBH<br>1. zikloa | DBH<br>2. zikloa |         |
| Kirola egiten                         | 11,8       | 5,6   | 10,9             | 7,0              | 8,9     |
| Lagunekin egoten                      | 55,9       | 79,0  | 62,6             | 70,7             | 66,8    |
| Talde/elkarteren batean parte hartzen | 1,2        | 2,1   | -                | 3,2              | 1,6     |
| Nire hobbie eta afizioetan            | 21,7       | 8,4   | 17,7             | 13,4             | 15,5    |
| Beste gauzatan                        | 9,3        | 4,9   | 8,8              | 5,7              | 7,2     |
| Guztira                               | %          | 100,0 | 100,0            | 100,0            | 100,0   |
|                                       | Lagina (n) | 161   | 143              | 147              | 157     |

### 3. Grafikoa



Galdeketa-xede izan den gazte taldean berebiziko garrantzia hartzen du berdinaren taldeak. Galdekizuna erantzun duten gazteen artean hirutik bik dio, denbora libre gehiago izanez gero lagunekin edo koadrilarekin egoteko erabiliko lukeela.

Bestalde, %15,5 dira denbora libre gehiago izanez gero euren hobby edo zaletasunetarako erabiliko luketela erantzun dutenak (proportzio honek gora egiten du mutilen artean).



- Egungo partaidetza elkarteetan: Zein motatako kide zara gaur egun?

|                  | Sexua  |       | Maila            |                  | Guztira |      |
|------------------|--------|-------|------------------|------------------|---------|------|
|                  | Mutila | Neska | DBH<br>1. zikloa | DBH<br>2. zikloa | %       | Abs. |
| Kirol taldeak    | 82,0   | 52,4  | 68,7             | 67,5             | 68,1    | 304  |
| Musika taldeak   | 16,8   | 21,0  | 21,8             | 15,9             | 18,8    | 304  |
| Dantza taldeak   | 8,7    | 14,7  | 15,6             | 7,6              | 11,7    | 304  |
| Abesbatzak       | 1,2    | 10,5  | 10,9             | 0,6              | 5,6     | 304  |
| Antzerki taldeak | 1,2    | 1,4   | 2,7              | -                | 1,3     | 304  |
| Argazki taldeak  | -      | 1,4   | 1,4              | -                | 0,7     | 304  |
| Aisialdi taldeak | 12,4   | 9,8   | 19,7             | 3,2              | 11,2    | 304  |
| Erljio taldeak   | 3,1    | -     | 0,7              | 2,5              | 1,6     | 304  |
| Mendi taldeak    | 17,4   | 11,2  | 19,7             | 9,6              | 14,5    | 304  |
| Besterik         | 8,7    | 2,1   | 10,2             | 1,3              | 5,6     | 304  |

- Galdetuak izan diren gazteen artean %68,1 dira kirol talderen batean kide direnak (mutilen kasuan ehuneko honek %82ra egiten du gora).
- %18,8 dira musika talderen batean kide diren gazteak.
- %14,5 mendi elkarte batean dira kide.
- %11,5 dantza talde baten kide dira.
- %11,2 dira aisialdi talde batean kide direla erantzun dutenak
- Lehen zikloko ikasleen artean, 5 talde eta elkarte mota hauetan kide direnak bigarren zikloko ikasleen artean baino gehiago dira.

- Elkarteetan kide izateko nahia: Zein elkarte motatan parte hartu nahi izango zenuke? (kide ez direnen artean).

|                  | Sexua  |       | Maila            |                  | Guztira |      |
|------------------|--------|-------|------------------|------------------|---------|------|
|                  | Mutila | Neska | DBH<br>1. zikloa | DBH<br>2. zikloa | %       | Abs. |
| Kirol taldeak    | 41,4   | 55,9  | 41,3             | 60,0             | 51,5    | 97   |
| Musika taldeak   | 37,3   | 42,5  | 36,5             | 42,4             | 39,7    | 247  |
| Dantza taldeak   | 2,7    | 22,1  | 13,7             | 9,7              | 11,5    | 269  |
| Abesbatzak       | 1,9    | 5,5   | 3,8              | 3,2              | 3,5     | 287  |
| Antzerki taldeak | 18,2   | 41,1  | 35,0             | 23,6             | 29,0    | 300  |
| Argazki taldeak  | 26,7   | 50,4  | 23,4             | 51,0             | 37,7    | 302  |
| Aisialdi taldeak | 41,8   | 55,0  | 36,4             | 57,2             | 48,1    | 270  |
| Erljio taldeak   | 0,6    | 4,9   | 4,8              | 0,7              | 2,7     | 299  |
| Mendi taldeak    | 48,1   | 44,1  | 39,0             | 52,1             | 46,2    | 260  |
| Besterik         | 6,8    | 5,7   | 5,3              | 7,1              | 6,3     | 287  |

- Kirol talderen batean kide ez diren gazteen artean erdiak dira (%51,5) kide izan nahi luketenak.
- Aisialdi talderen batean kide ez diren gazteen artean %48,1ek kide izan nahiko lukete.
- Mendi talderen batean kide ez diren gazteen artean %46,2k parte hartu nahi lukete.
- Musika talderen batean kide ez direnen artean, %39,7 dira nahi luketenak.
- Argazki talde edo elkarteren batean kide ez direnen artean, %37,7k kide izan nahi luke.


### 3.1.2. Gazte-txokoa ekipamendu baten inguruan.

Sentitzen den Gazte-txokoaren beharra eta bertaratzeko maiztasuna.

- Sentitzen den beharra: Zenbateraino iruditzen zaizu beharrezkoa Legazpin gazteentzako lokal bat egotea?

|                       |            | Sexua  |       | Maila            |                  | Guztira |
|-----------------------|------------|--------|-------|------------------|------------------|---------|
|                       |            | Mutila | Neska | DBH<br>1. zikloa | DBH<br>2. zikloa |         |
| Oso beharrezkoa       |            | 78,9   | 76,9  | 72,8             | 82,8             | 77,9    |
| Nahikoa beharrezkoa   |            | 18,0   | 19,6  | 24,5             | 13,4             | 18,8    |
| Ez oso beharrezkoa    |            | 2,5    | 2,1   | 2,0              | 2,5              | 2,3     |
| Batere beharrezkoa ez |            | 0,6    | 1,4   | 0,7              | 1,3              | 1,0     |
| Guztira               | %          | 100,0  | 100,0 | 100,0            | 100,0            | 100,0   |
|                       | Lagina (n) | 161    | 143   | 147              | 157              | 304     |

#### 4. Grafikoa.




• Gazteen artean %78 dira Legazpin Gazte-txokoa oso beharrezkoa dela uste dutenak (ehuneko horrek nabarmen gora egiten du DBH-ko bigarren zikloko ikasleen artean).

- Gazte-txokora joateko maiztasuna: Gazte-txokora, zenbateraino joango zinatekeela uste duzu?

|                                    |            | Sexua  |       | Maila            |                  | Guztira |
|------------------------------------|------------|--------|-------|------------------|------------------|---------|
|                                    |            | Mutila | Neska | DBH<br>1. zikloa | DBH<br>2. zikloa |         |
| Oso maiz (egunero, edo aste barru) |            | 68,3   | 69,9  | 66,7             | 71,3             | 69,1    |
| Nahikoa maiz (hilean zehar)        |            | 21,7   | 26,6  | 27,2             | 21               | 24,0    |
| Ez oso maiz (urtean zenbaitetan)   |            | 7,5    | 2,8   | 4,1              | 6,4              | 5,3     |
| Ez nintzateke joango               |            | 1,9    | 0,7   | 1,4              | 1,3              | 1,3     |
| Ez daki/ez du erantzun             |            | 0,6    | -     | 0,7              | -                | 0,3     |
| Guztira                            | %          | 100,0  | 100,0 | 100,0            | 100,0            | 100,0   |
|                                    | Lagina (n) | 161    | 143   | 147              | 157              | 304     |

#### 5. Grafikoa.




• Galdetuak izan direnen artean, gazteen ia %70ek diote Gazte-txokora oso maiz (egunero edo astean zenbaitetan) joango liratekeela.

- Gazte-txokoari ematen zaion erabilgarritasun pertsonala: Zure kasuan, nagusiki zertarako erabiliko zenuke Gazte-txokoa?

|  |            | Oso maiz<br>(egunero edo...) | Beste<br>kategoriak | Guztira |
|--|------------|------------------------------|---------------------|---------|
| Nire lagunekin egoteko                                   |            | 73,8                         | 67,0                | 71,7    |
| Jarduerak antolatzeke                                    |            | 7,6                          | 8,5                 | 7,9     |
| Antolatutako jardueretan parte hartzeke (ni antolatu ez) |            | 3,8                          | 3,2                 | 3,6     |
| Ezertarako ez, ez nintzateke joango                      |            | -                            | 2,1                 | 0,7     |
| Beste gauzatarako  |            | 14,8                         | 19,1                | 16,1    |
| GUZTIRA  | %          | 100                          | 100                 | 100     |
|  | Lagina (n) | 210                          | 94                  | 304     |

#### 6. Grafikoa.



- Neurri handi batean Gazte-txokoa "egoteko" edo "harremanetarako" leku gisa ulertzen dute gazteek. Gazteen artean %71,7k diote funtsean lagunekin egoteko erabiliko luketela ekipamendua (ehuneko horrek gora egiten du nesken eta DBH-ko lehen zikloko ikasleen kasuan).
- Gazteen artean %7,9 baino ez dira Gazte-txokoa funtsean jarduerak antolatzeke erabiliko luketela diotenak (ehuneko horrek gora egiten du nesken eta DBH-ko bigarren zikloko ikasleen kasuan).

- Gazte-txokoari ematen zaion erabilgarritasun soziala: Aipa itzazu Gazte-txokoak bete beharko lituzkeen bi funtzio nagusiak.


|   | 1.FUNTZIOA |                  |         | 2.FUNTZIOA |                  |         | GUZTIRA |     |
|---|------------|------------------|---------|------------|------------------|---------|---------|-----|
|   | Oso maiz   | Beste Kategoriak | Guztira | Oso maiz   | Beste Kategoriak | Guztira | %       | Abs |
| Gazteok lasai egon, jolastu edo jarduerak antolatu ditzakegun lekua izan behar du.                        | 44,3       | 31,9             | 40,5    | 15,7       | 19,1             | 16,8    | 57,2    | 174 |
| Lokalik ez duten taldeek gazteentzat antolatzen dituzten jarduerak egin ahal izateko lekua izan behar du. | 1,9        | 3,2              | 2,3     | 10,0       | 11,7             | 10,5    | 12,8    | 39  |
| Gazte guztiak bilduko diren lekua izan behar du.  | 12,9       | 11,7             | 12,5    | 14,8       | 7,4              | 12,5    | 25,0    | 76  |
| Gazteei Legazpin bertan aukera berriak eskainiko dizkien lokala.  | 9,0        | 10,6             | 9,5     | 21,0       | 21,3             | 21,1    | 30,6    | 93  |
| Gazteek, beraiek nahi dutena egiteko lokala, beren kasa eta inoren kontrolik gabe.                        | 25,7       | 35,1             | 28,6    | 24,8       | 16,0             | 22,0    | 50,7    | 154 |
| Legazpiko ikastetxe desberdinetako gazteak biltzeko lekua izan behar du.                                  | 5,2        | 5,3              | 5,3     | 11,0       | 13,8             | 11,8    | 17,1    | 52  |
| Beste gauzatarako izan behar du.  | 0,5        | -                | 0,3     | 2,4        | 7,4              | 3,9     | 4,3     | 13  |
| Ed/Ee.  | 0,5        | 2,1              | 1,0     | 0,5        | 3,2              | 1,3     | 2,3     | 7   |
| GUZTIRA   | %          | 100              | 100     | 100        | 100              | 100     | 100     |     |
|   | Lagina (n) | 210              | 94      | 304        | 210              | 94      | 304     |     |

- Ikuspegi sozialetik, Gazte-txokoari ematen zaion lehen funtzioa gazteak lasai egon, jolastu eta antolatzeko lekua izatea da (egotearekin, lasaitasunarekin, informalitatearekin, jolasa eta ondo pasatzearekin lotzen da) eta horrekin batera, beraiek nahi dutena egiteko lokala edukitzea kanpoko kontrolik gabe (gazteen menpe bakarrik dagoen esparrua, kanpotik ezarritako baldintzarik gabea).

- Gazte-txokorako begiraleak: Zenbaiteraino zaude ados Gazte-txokoan antolatzen diren jarduerak aurrera eraman daitezzen begirale espezializatuen laguntza izatearekin?

|                |            | Oso maiz (egunero edo joango liratekeenak) | Beste kategoriak | GUZTIRA |
|----------------|------------|--|------------------|---------|
| Oso ados       |            | 42,9                                       | 24,5             | 37,2    |
| Nahikoa ados   |            | 39,5                                       | 42,6             | 40,5    |
| Ez oso ados    |            | 12,9                                       | 17,0             | 14,1    |
| Batere ados ez |            | 4,8  | 16,0             | 8,2     |
| GUZTIRA        | %          | 100  | 100              | 100     |
|                | Lagina (n) | 210  | 94               | 304     |

## 7. Grafikoa




• Galdetuak izan diren gazteen artean hiru laurdenak baino gehiago (%77,2) oso ados eta nahikoa ados daude antolatuko diren jarduerak aurrera eramaten begirale espezializatuek lagun dezaten. Ehuneko horrek gora egiten du (%82,4 arte) maiztasun handiz joateko asmoa adierazi dutenen artean.

- Gazte-txokoaren funtzionamendurako baldintzak: Zer iruditzen zaizu udaletxeak Gazte-txokoaren funtzionamendua arautzeko gutxienezko baldintza batzuk jartzea?

|              |            | Oso maiz (egunero edo joango liratekeenak) | Beste kategoriak | GUZTIRA |
|--------------|------------|--|------------------|---------|
| Oso ongi     |            | 26,2                                       | 16,0             | 23,0    |
| Nahikoa ongi |            | 30,5                                       | 30,9             | 30,6    |
| Erdipurdi    |            | 23,8                                       | 28,7             | 25,3    |
| Gaizki       |            | 8,1  | 9,6              | 8,6     |
| Oso gaizki   |            | 11,4                                       | 13,8             | 12,2    |
| Ed/Ee        |            | -  | 1,1              | 0,3     |
| GUZTIRA      | %          | 100  | 100              | 100     |
|              | Lagina (n) | 210  | 94               | 304     |

## 8. Grafikoa



• Kontsultatuak izan diren gazteen artean erdiek baino gehiagok (%53,6) oso ongi edo nahikoa ongi ikusten dute Legazpiko udalak Gazte-txokoaren funtzionamendurako gutxienezko baldintza batzuk jartzea (ehuneko horrek zertxobait gora egiten du Gazte-txokora maiztasun handiz joateko asmoa adierazi duten gazteen kasuan).



Bukatzeko, hona hemen denbora librea eta gazte-txoko ekipamenduaren inguruan Siadeco Elkarteak egin duen azterketaren ondorio nabariak:

- ↳ 12-16 urte bitarteko herriko gazteek duten denbora librea ondo pasatzeko gazteentzako lokala behar dute (%60,2).
- ↳ Gazteen %77,9 dira Legazpin Gazte-txokoa oso beharrezkoa dela uste dutenak. Lokal hori gainera oso maiz erabiliko lukete gazteen %69,1ek.
- ↳ Lokala lagunekin/koadrilarekin egoteko erabili nahi dute gazteen %71,7k. Oso gutxi dira jarduerak antolatzen parte hartzeko asmoa azaldu dutenak (%7,9).
- ↳ Kontrolik gabeko lokala nahi dute %50,7k.
- ↳ Gazteen %77,7 dira begirale espezializatuen laguntza izatearekin ados edo nahikoa ados agertu direnak.
- ↳ Eta gazteen artean %53,6 dira oso ongi edo nahikoa ongi ikusten dutenak Legazpiko udalak gazte-txokoaren funtzionamendurako gutxieneko baldintzak jartzea.

### 3.2. Euskararen inguruko inkesta.

"12-16 urte bitarteko gaztetxoentzako Gazte Txoko proiektua. Gune euskalduna sortzeko aitzakia" izeneko lana egitea erabaki nuenean, herriko adin horretako gazteen artean euskararen inguruko inkesta egitea interesgarria izango litzatekeela pentsatu nuen. Gazteei inkesta egitea eskatzea ez zen gauza zaila, bi ikastetxetan bakarrik banatuta baitaude eta ikastetxeekin harreman onak ditugunez, ez zitzaidan lan nekeza iruditu hori. Inkesta bera prestatzea, aldiz, lan neketsuagoa zen. Metodologia kuantitatiboa erabiliz eta galdera itxiak eginez gero, erraza da emaitzak kuantifikatzea baina gazteen euskararen inguruko iritziak jasotzeko galderaren bat irekia sartzea ere aberasgarria izango zela erabaki nuen. Inkestaren galderak prestatzeko laguntza eskatu nion lan honetan gidari izan dudana Lasarte-Oriako euskara teknikari Iñaki Arruti jaunari. Berak prestatua da herriko 12-16 urte bitarteko gazteei pasatu zaien euskararen inguruko inkesta. 14 galdera guztira: 11 itxiak eta 3 irekiak.

Galdera itxien ustiaketa SPSS pakete estatistikoaren bitartez egin da. Galdera irekiei dagokienez, erantzun guztiak jaso eta banan-banan aztertu dira.

2001-2002 ikasturtean 12-16 urte bitarteko gazteak 327 izan dira; jaso diren inkestak, berriz, 305 (%93,27). Hona hemen inkestek eman dituzten emaitzak:

\* Lehenengo galdera itxien emaitzak aurkeztuko ditugu.

### 1. Maila.

| Maila   | Ikasle-kopurua | %    |
|---------|----------------|------|
| DBH 1   | 57             | 18,7 |
| DBH 2   | 82             | 26,9 |
| DBH 3   | 65             | 21,3 |
| DBH 4   | 101            | 33,1 |
| Guztira | 305            | 100  |

### Aldagai soziodemografikoak.

#### 2. Sexua.

| Sexua       | Ikasle-kopurua | %    |
|-------------|----------------|------|
| Emakumezkoa | 147            | 48,2 |
| Gizonezkoa  | 158            | 51,8 |
| Guztira     | 305            | 100  |

### Hizkuntzazko gaitasuna.

#### 3. Orokorrean, zein hizkuntzatan duzu erraztasun handiagoa?

##### 3.1. Ulertzeko

|                      | Ikasle-kopurua | %    |
|----------------------|----------------|------|
| Euskaraz errazago    | 87             | 28,5 |
| Gaztelaniaz errazago | 52             | 17,0 |
| Bietan berdintsu     | 164            | 53,8 |
| Ez dakit euskaraz    | 1              | 0,3  |
| Ez du erantzun       | 1              | 0,3  |
| Guztira              | 305            | 100  |

### 3.2. Hitz egiteko

|                      | Ikasle-kopurua | %    |
|----------------------|----------------|------|
| Euskaraz errazago    | 81             | 26,6 |
| Gaztelaniaz errazago | 111            | 36,4 |
| Bietan berdintsu     | 110            | 36,1 |
| Ez du erantzun       | 3              | 1,0  |
| Guztira              | 305            | 100  |


### 3.3. Irakurtzeko

|                      | Ikasle-kopurua | %    |
|----------------------|----------------|------|
| Euskaraz errazago    | 108            | 35,4 |
| Gaztelaniaz errazago | 63             | 20,7 |
| Bietan berdintsu     | 128            | 42,0 |
| Ez dakit euskaraz    | 1              | 0,3  |
| Ez du erantzun       | 5              | 1,6  |
| Guztira              | 305            | 100  |

### 3.4. Idazteko

|                      | Ikasle-kopurua | %    |
|----------------------|----------------|------|
| Euskaraz errazago    | 153            | 50,2 |
| Gaztelaniaz errazago | 52             | 17,0 |
| Bietan berdintsu     | 95             | 31,1 |
| Ez dakit euskaraz    | 2              | 0,7  |
| Ez du erantzun       | 3              | 1,0  |
| Guztira              | 305            | 100  |

Grafikoa:



Gazteek euskara irakurtzeko eta idazteko gaitasun handiagoa aitortzen dute ulertzeko eta hitz egiteko baino. 'Euskaraz errazago' eta 'Bietan berdintsu' aldagaietan aurkitzen ditugun kopuruak gehitzen baditugu, antzeko kopuruak aurkituko ditugu hiru trebetasunetan: ulertzeko, 251 (%82,29); irakurtzeko, 236 (%77,38); idazteko, 248 (%81,31). Hitz egiteko trebetasunean, berriz, dexente behera egiten du bi aldagai horien batuketak: 191 (%62,62).

#### 4. Orokorrean, zein hizkuntzatan hitz egiten duzu errazago egoera/toki hauetan?

##### 4.1. Ikaskideekin

|                        | Ikasle-kopurua | %    |
|------------------------|----------------|------|
| Euskaraz errazago      | 105            | 34,4 |
| Gaztelaniaz errazago   | 75             | 24,8 |
| Bietan berdintsu       | 118            | 38,7 |
| Ez dut euskaraz egiten | 4              | 1,3  |
| Ez du erantzun         | 3              | 1,0  |
| Guztira                | 305            | 100  |


##### 4.2. Kuadrilakoekin

|                        | Ikasle-kopurua | %    |
|------------------------|----------------|------|
| Euskaraz errazago      | 45             | 14,8 |
| Gaztelaniaz errazago   | 129            | 42,3 |
| Bietan berdintsu       | 116            | 38,0 |
| Ez dut euskaraz egiten | 13             | 4,3  |
| Ez du erantzun         | 2              | 0,7  |
| Guztira                | 305            | 100  |

### 4.3. Etxean

|                        | Ikasle-kopurua | %    |
|------------------------|----------------|------|
| Euskaraz errazago      | 75             | 24,6 |
| Gaztelaniaz errazago   | 127            | 41,6 |
| Bietan berdintsu       | 51             | 16,7 |
| Ez dut euskaraz egiten | 51             | 16,7 |
| Ez du erantzun         | 1              | 0,3  |
| Guztira                | 305            | 100  |

Grafikoa:



Garbi dago, gazteen artean euskararen erabilera altua dela ikaskideekin ari direnean. Harreman horiek gelako harremanak izango direnez eta D ereduan ari direnez, normala da jaso dugun erantzuna. Aldiz, kuadrilakoekin hitz egiteko 'gaztelaniaz errazago' moldatzen direla aitortzen dute (%42,3). Etxekoekin 'euskaraz errazago' ari dira kuadrilakoekin baino baina hala ere, 'gaztelaniaz errazago' eta 'euskaraz egiten ez dutenen' kopurua altua da (%58,3).

## 5. Zein hizkuntzatan egiten duzu pertsona hauekin?

### 5.1. Aitarekin

|                                    | Ikasle-kopurua | %    |
|------------------------------------|----------------|------|
| Beti euskaraz                      | 68             | 22,3 |
| Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago | 18             | 5,9  |
| Bietan berdin                      | 12             | 3,9  |
| Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago | 29             | 9,5  |
| Beti gaztelaniaz                   | 170            | 55,7 |
| Beste kasuak                       | 3              | 1,0  |
| Ez du erantzun                     | 5              | 1,6  |
| Guztira                            | 305            | 100  |

### 5.2. Amarekin

|                                    | Ikasle-kopurua | %    |
|------------------------------------|----------------|------|
| Beti euskaraz                      | 63             | 20,9 |
| Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago | 24             | 7,9  |
| Bietan berdin                      | 17             | 5,6  |
| Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago | 43             | 14,1 |
| Beti gaztelaniaz                   | 152            | 49,8 |
| Beste kasuak                       | 3              | 1,0  |
| Ez du erantzun                     | 3              | 1,0  |
| Guztira                            | 305            | 100  |

### 5.3. Anai-arrebekin

|                                    | Ikasle-kopurua | %    |
|------------------------------------|----------------|------|
| Beti euskaraz                      | 71             | 23,3 |
| Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago | 34             | 11,1 |
| Bietan berdin                      | 30             | 9,8  |
| Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago | 53             | 17,4 |
| Beti gaztelaniaz                   | 70             | 23,0 |
| Beste kasuak                       | 13             | 4,3  |
| Ez du erantzun                     | 34             | 11,1 |
| Guztira                            | 305            | 100  |

#### 5.4. Aiton-amonekin

|                                    | Ikasle-kopurua | %    |
|------------------------------------|----------------|------|
| Beti euskaraz                      | 79             | 25,9 |
| Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago | 25             | 8,2  |
| Bietan berdin                      | 20             | 6,6  |
| Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago | 14             | 4,6  |
| Beti gaztelaniaz                   | 150            | 49,2 |
| Beste kasuak                       | 8              | 2,6  |
| Ez du erantzun                     | 9              | 3,0  |
| Guztira                            | 305            | 100  |

Lau taula horietan etxeko kideekin zein hizkuntza erabiltzen duten gazteek aztertu dugu. Kasu guztietan urria da euskararen erabilera, aiton-amonen kasuan zertxobait altuagoa bada ere (ia %26). Anai-arrebeekin gaztelaniaz bakarrik hitz egiten duten gazteen kopurua da datu bajaran eman duena (%23). Azken datu honetatik bi ondorio atera daitezke: edo anai-arreba txikiagoak dira eta txikiekin errazago egiten dute euskaraz; edo anai-arreba zaharragoak dira baina euskararen aldeko gutxieneko sentsibilizazio-maila dute. Dena dela, aitortu behar dugu euskararen erabilera eskasa dela gazte horien senitartekoen artean.

#### 5.5. Ikaskideekin klasean


|                                    | Ikasle-kopurua | %    |
|------------------------------------|----------------|------|
| Beti euskaraz                      | 90             | 29,5 |
| Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago | 79             | 25,9 |
| Bietan berdin                      | 51             | 16,7 |
| Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago | 58             | 19,0 |
| Beti gaztelaniaz                   | 21             | 6,9  |
| Beste kasuak                       | 2              | 0,7  |
| Ez du erantzun                     | 4              | 1,3  |
| Guztira                            | 305            | 100  |



## 5.6. Ikaskideekin kalean

|                                    | Ikasle-kopurua | %    |
|------------------------------------|----------------|------|
| Beti euskaraz                      | 33             | 10,8 |
| Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago | 64             | 21,0 |
| Bietan berdin                      | 66             | 21,6 |
| Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago | 62             | 20,3 |
| Beti gaztelaniaz                   | 72             | 23,6 |
| Beste kasuak                       | 1              | 0,3  |
| Ez du erantzun                     | 7              | 2,3  |
| Guztira                            | 305            | 100  |

Grafikoan angiago ikusiko dugu:



'Beti euskaraz' eta 'Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago' ikaskideekin klasean egiten duten gazteak 169 dira (%55,4) eta kalean berriz, kopuru hori 97ra jeisten da (%31,8). Alderantziz, ikaskideekin klasean 'Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago' eta 'Beti gaztelaniaz' egiten duten gazteak 79 dira (%25,9) eta kalean kopuru hori 134ra igoten da (%43,9). Nabarmena da, beraz, gazteek, oro har, euskal-eremutzat hartzen dutela klasea eta kalea berriz, erdal-eremutzat dute.

Pertsona berdinekin ari dira, ikaskideekin, baina komunikatzeko hautatzen duten hizkuntza ez da berdina klasean edo kalean.

### 5.7. Kuadrilako lagunekin

|                                    | Ikasle-kopurua | %    |
|------------------------------------|----------------|------|
| Beti euskaraz                      | 27             | 8,9  |
| Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago | 59             | 19,3 |
| Bietan berdin                      | 59             | 19,3 |
| Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago | 70             | 23,0 |
| Beti gaztelaniaz                   | 88             | 28,9 |
| Ez du erantzun                     | 2              | 0,7  |
| Guztira                            | 305            | 100  |

### 5.8. Auzoko lagunekin

|                                    | Ikasle-kopurua | %    |
|------------------------------------|----------------|------|
| Beti euskaraz                      | 44             | 14,4 |
| Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago | 41             | 13,4 |
| Bietan berdin                      | 60             | 19,7 |
| Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago | 53             | 17,4 |
| Beti gaztelaniaz                   | 89             | 29,2 |
| Beste kasuak                       | 7              | 2,3  |
| Ez du erantzun                     | 11             | 3,6  |
| Guztira                            | 305            | 100  |

Auzoko lagunekin kuadrilakoekin baino gehiago egiten dute euskaraz gure herriko gazteek. Hala ere, 'beti euskaraz', 'euskaraz gaztelaniaz baino gehiago' eta 'bietan berdin' aldagaiek eman duten kopuruak batzen baditugu, kopuru berdina aurkituko dugu bi kasutan, %47,5. Bestalde, 'beti gaztelaniaz' ari diren gazteen kopurua berdintsua da kuadrilakoekin izan (88) edo auzoko lagunekin izan (89) eta 'beti euskaraz' ari direnak baino gehiago dira: kuadrilakoekin 27 bakarrik eta auzoko lagunekin 44.

6. Eta pentsatzeko, ze hizkuntza erabiltzen duzu?

|                                    | Ikasle-kopurua | %    |
|------------------------------------|----------------|------|
| Beti euskaraz                      | 69             | 22,6 |
| Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago | 49             | 16,1 |
| Bietan berdin                      | 81             | 26,6 |
| Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago | 61             | 20,0 |
| Beti gaztelaniaz                   | 38             | 12,5 |
| Beste kasuak                       | 1              | 0,3  |
| Ez du erantzun                     | 6              | 2,0  |
| Guztira                            | 305            | 100  |

Erabilerak emaitza urriak ematen dituen arren, gazteetatik 69k 'beti euskaraz' pentsatzen dutela aitortu dute eta 'beti gaztelaniaz', aldiz, 38k bakarrik.

8. Dakizun euskarak balio al dizu herriko euskaldunekin ondo komunikatzeko?

|                | Zure adinekoekin |       | Jende helduarekin |       |
|----------------|------------------|-------|-------------------|-------|
| Gehienetan bai | 286              | %93,8 | 247               | %81,0 |
| Gehienetan ez  | 16               | %5,2  | 54                | %17,5 |
| Ez du erantzun | 3                | 1     | 4                 | 1,5   |
| Guztira        | 305              | 100   | 305               | 100   |

Bi kasutan, bai adin berdinekoekin (%93,8) eta herriko jende helduarekin (%81) komunikatzeko gazteek dakiten euskarak balio diela aitortu dute.

9. Euskaraz hitz egiten duzunean, erdarazko esaldiak tartekatzen dituzu?

|                             | Gazte-kopurua | %    |
|-----------------------------|---------------|------|
| Bai, sarritan               | 71            | 23,3 |
| Oso tarteka                 | 91            | 29,9 |
| Ez, normalean ez            | 134           | 43,9 |
| Ez dut euskaraz hitz egiten | 5             | 1,6  |
| Ez du erantzun              | 4             | 1,3  |
| Guztira                     | 305           | 100  |

Galdera honek eman dituen emaitzak ikusirik, aipagarria da euskaraz ari direnean erdarazko esaldiak tartekatzen ez dituztela dioten gazteen kopurua: 134 (%43,9). Datu positiboa da hori, euskaraz ari direnean behintzat euskara garbia, nahasketarik gabe, erabiltzen omen baitute herriko gazteek.

10. Suposatuz zuk egindakoa jasoko duenak euskaraz badakiela, zein hizkuntzatan egiten dituzu jardura hauek?

10.1. Eskutitz bat idatzi

|                                    | Ikasle-kopurua | %    |
|------------------------------------|----------------|------|
| Beti euskaraz                      | 128            | 42,0 |
| Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago | 31             | 10,2 |
| Bietan berdin                      | 47             | 15,4 |
| Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago | 38             | 12,5 |
| Beti gaztelaniaz                   | 43             | 14,1 |
| Ez dut hori egiten                 | 14             | 4,6  |
| Ez du erantzun                     | 4              | 1,3  |
| Guztira                            | 305            | 100  |

### 10.2. Ohar bat utzi

|                                    | Ikasle-kopurua | %    |
|------------------------------------|----------------|------|
| Beti euskaraz                      | 113            | 37,0 |
| Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago | 30             | 9,8  |
| Bietan berdin                      | 43             | 14,1 |
| Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago | 38             | 12,5 |
| Beti gaztelaniaz                   | 72             | 23,6 |
| Ez dut hori egiten                 | 6              | 2,0  |
| Ez du erantzun                     | 3              | 1,0  |
| Guztira                            | 305            | 100  |

### 10.3. Telefonoa erantzun

|                                    | Ikasle-kopurua | %    |
|------------------------------------|----------------|------|
| Beti euskaraz                      | 156            | 51,1 |
| Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago | 16             | 5,2  |
| Bietan berdin                      | 32             | 10,5 |
| Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago | 26             | 8,5  |
| Beti gaztelaniaz                   | 72             | 23,6 |
| Ez du erantzun                     | 3              | 1,0  |
| Guztira                            | 305            | 100  |

### 10.4. Dendan eskatu

|                                    | Ikasle-kopurua | %    |
|------------------------------------|----------------|------|
| Beti euskaraz                      | 85             | 27,9 |
| Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago | 46             | 15,1 |
| Bietan berdin                      | 69             | 22,6 |
| Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago | 43             | 14,1 |
| Beti gaztelaniaz                   | 55             | 18,0 |
| Ez dut hori egiten                 | 1              | 0,3  |
| Ez du erantzun                     | 6              | 2,0  |
| Guztira                            | 305            | 100  |

### 10.5. Txistek kontatu

|                                    | Ikasle-kopurua | %    |
|------------------------------------|----------------|------|
| Beti euskaraz                      | 30             | 9,8  |
| Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago | 25             | 8,2  |
| Bietan berdin                      | 80             | 26,2 |
| Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago | 69             | 22,6 |
| Beti gaztelaniaz                   | 81             | 26,6 |
| Ez dut hori egiten                 | 15             | 4,9  |
| Ez du erantzun                     | 5              | 1,6  |
| Guztira                            | 305            | 100  |

### 10.6. Haserrea agertu

|                                    | Ikasle-kopurua | %    |
|------------------------------------|----------------|------|
| Beti euskaraz                      | 44             | 14,4 |
| Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago | 29             | 9,5  |
| Bietan berdin                      | 56             | 18,4 |
| Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago | 57             | 18,7 |
| Beti gaztelaniaz                   | 110            | 36,1 |
| Ez dut hori egiten                 | 5              | 1,6  |
| Ez du erantzun                     | 4              | 1,3  |
| Guztira                            | 305            | 100  |

### 10.7. Gai intimoetaz hitz egin

|                                    | Ikasle-kopurua | %    |
|------------------------------------|----------------|------|
| Beti euskaraz                      | 76             | 24,9 |
| Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago | 25             | 8,2  |
| Bietan berdin                      | 66             | 21,6 |
| Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago | 34             | 11,1 |
| Beti gaztelaniaz                   | 89             | 29,2 |
| Ez dut hori egiten                 | 10             | 3,3  |
| Ez du erantzun                     | 5              | 1,6  |
| Guztira                            | 305            | 100  |

## 10.8. Piropo bat bota

|                                    | Ikasle-kopurua | %    |
|------------------------------------|----------------|------|
| Beti euskaraz                      | 24             | 7,9  |
| Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago | 26             | 8,5  |
| Bietan berdin                      | 62             | 20,3 |
| Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago | 66             | 21,6 |
| Beti gaztelaniaz                   | 98             | 32,1 |
| Ez dut hori egiten                 | 23             | 7,5  |
| Ez du erantzun                     | 6              | 2,0  |
| Guztira                            | 305            | 100  |

Gazteetatik erdiek 'beti euskaraz' erantzuten dute telefonoz; beste %15,7k 'euskaraz gaztelaniaz baino gehiago' edo 'bietan berdin'.

'Eskutitza idatzi' (%42,0) eta 'ohar bat utzi' (%37,0) jarduerak dira telefonoa erantzuteaz gain 'beti euskaraz' gehienbat burutzen diren jarduerak.

Aldiz, 'txisteak kontatu' (%9,8) eta 'piropo bat bota' (%7,9) jarduerak dira 'beti euskaraz' gutxien egiten diren jarduerak. Hala ere, kontuan izan behar dugu, bi jarduera horiek egiten ez dituen gazteen kopurua altua dela: ez ditu txisteak kontatzen gazteen %4,9k eta ez ditu piropoak botatzen gazteen %7,5ek.

'Haserrea agertu' jarduera da gehien 'beti gaztelaniaz' egiten den jarduera (%36,1). Atzetik datoz 'piropo bat bota' (%32,1) eta 'gai intimoetaz hitz egin' (%29,2).

## Hizkuntzekiko jarrerak.

11. Zure ustez, ondoko pertsona hauek nolako interesa dute euskararekiko?

### 11.1. Aitak

|                | Erantzunak | %    |
|----------------|------------|------|
| Handia         | 111        | 36,4 |
| Nahikoa        | 67         | 22,0 |
| Tartekoa       | 42         | 13,8 |
| Txikia         | 43         | 14,1 |
| Batere ez      | 35         | 11,5 |
| Ez du erantzun | 7          | 2,2  |
| Guztira        | 305        | 100  |

### 11.2. Amak

|                | Erantzunak | %    |
|----------------|------------|------|
| Handia         | 126        | 41,3 |
| Nahikoa        | 78         | 25,6 |
| Tartekoa       | 37         | 12,1 |
| Txikia         | 40         | 13,1 |
| Batere ez      | 19         | 6,2  |
| Ez du erantzun | 5          | 1,6  |
| Guztira        | 305        | 100  |

### 11.3. Anai-arrebek

|                | Erantzunak | %    |
|----------------|------------|------|
| Handia         | 115        | 37,7 |
| Nahikoa        | 77         | 25,2 |
| Tartekoa       | 33         | 10,8 |
| Txikia         | 19         | 6,2  |
| Batere ez      | 13         | 4,3  |
| Ez du erantzun | 48         | 15,7 |
| Guztira        | 305        | 100  |



#### 11.4. Aitona-amonek

|                | Erantzunak | %    |
|----------------|------------|------|
| Handia         | 114        | 37,4 |
| Nahikoa        | 45         | 14,8 |
| Tartekoa       | 34         | 11,1 |
| Txikia         | 35         | 11,5 |
| Batere ez      | 63         | 20,7 |
| Ez du erantzun | 14         | 4,6  |
| Guztira        | 305        | 100  |

#### 11.5. Ikaskideek

|                | Erantzunak | %    |
|----------------|------------|------|
| Handia         | 113        | 37,0 |
| Nahikoa        | 100        | 32,8 |
| Tartekoa       | 54         | 17,7 |
| Txikia         | 21         | 6,9  |
| Batere ez      | 13         | 4,3  |
| Ez du erantzun | 4          | 1,3  |
| Guztira        | 305        | 100  |

#### 11.6. Kuadrilako lagunek

|                | Erantzunak | %    |
|----------------|------------|------|
| Handia         | 112        | 36,7 |
| Nahikoa        | 101        | 33,1 |
| Tartekoa       | 50         | 16,4 |
| Txikia         | 27         | 8,9  |
| Batere ez      | 12         | 3,9  |
| Ez du erantzun | 3          | 1,0  |
| Guztira        | 305        | 100  |

### 11.7. Auzoko lagunek

|                | Erantzunak | %    |
|----------------|------------|------|
| Handia         | 82         | 26,9 |
| Nahikoa        | 85         | 27,9 |
| Tartekoa       | 77         | 25,2 |
| Txikia         | 23         | 7,5  |
| Batere ez      | 24         | 7,9  |
| Ez du erantzun | 14         | 4,6  |
| Guztira        | 305        | 100  |


Gazteen ustetan, interes handiena amek dute (126). Hala ere, 'interes handia' eta 'nahikoa interes' aldagaiak batuta lortu diren emaitzak oso antzekoak dira kasu guztietan, %69,8 eta %52,2 artean daude denak. Bi aldagai horiek batuta emaitza hoberenak kuadrilako lagunek eta ikaskideek eman dute (%69,8). Egia esan datu hori ez dator bat gazteen arteko euskararen erabilerarekin; badirudi gazteek oso interesatuta daudela euskararekin baina ez dute hori hizkuntzaren erabilerarekin lotzen.

Aipagarria da gazteek aiton-amonen interesen inguruan esan dutena. Hemen aurkitu ditugu datu kazkarrenak: batere interesik ez duten aiton-amonak 63 (%20,7) baitira. Bi arrazoi egon daitezke erantzun horietan: batetik, gaur egungo gazteen aiton-amonak asko bere garaian kanpotik hemengo Patricio Echeverria lantegira lanera etorri zirenak izango dira seguru asko eta, bestetik, 13. galderan hemen emandako erantzuna argitzeko eskatu zaienean gazte askok ikasteko asmorik eza interes gutxi edo ezarekin lotu dutela ikusi ahal izan dugu eta, noski, adinagatik aiton-amonak dira ikasteko asmorik ez dutenak.

## 12. Nolako interesa duzu zuk zeuk?

|                | Gazte-kopurua | %    |
|----------------|---------------|------|
| Handia         | 163           | 53,4 |
| Nahikoa        | 98            | 32,1 |
| Tartekoa       | 29            | 9,5  |
| Txikia         | 4             | 1,3  |
| Batere ez      | 8             | 2,6  |
| Ez du erantzun | 3             | 1,0  |
| Guztira        | 305           | 100  |

Emaitza hauek grafikoan garbiago ikusiko dugu:



Hona hemen oso datu interesgarria. Gazteen %53,4 oso interesatuta daude euskararekiko. Eta interes handia eta nahikoa dute gazteen %85,5ek. Inkesta bete duten 305 gazteetatik 8 bakarrik dira batere interesik ez dutela adierazi dutenak eta 4 interes txikia dutela diotenak. Hori benetan hala bada, oso datu esanguratsua eta baikorra da.

\* Orain galdera irekiak aztertuko ditugu:

## 7. Zeintzuk dira zure lagunik onenak?


Galdera honen erantzunak ezin izan dira SPSS pakete estatistikoaren bitartez ustiatu eta beraz, galdera irekitzat hartu dut.

Gazteei hiru lagun onenen izenak, zein adinekoak diren, elkarrekin non egoten diren eta zein hizkuntzatan hitz egiten duten esan dezatela eskatu zaie.

Guztira, gazteen erantzunetatik 830 harremanen berri jaso dugu. Oro har, adin bereko gazteekin dituzte harremanak eta, oro har, denak kalean (parkean), klasean eta kirolean egoten dira elkarrekin (adinez nagusienak tabernetan ere). Zein hizkuntza erabiltzen dutenei dagokienez, hona hemen erantzunak:

Lagunminekin herriko gazteek dituzten 830 harreman horietatik 232 (%27,95) euskaraz dira; 53 (%6,39) euskaraz gaztelaniaz baino gehiago; 236 (%28,43) bietara; 50 (%6,02) gaztelaniaz euskaraz baino gehiago eta 259 (%31,21) gaztelaniaz.

'Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago' harremanak euskarazkotzat hartzen baditugu eta 'gaztelaniaz euskaraz baino gehiago' aitortutakoak gaztelaniazkotzat hartzen baditugu, hona hemen grafikoki herriko gazteek lagunminekiko harremanetan erabiltzen duten hizkuntza:



Oso parekatuta daude gaztelaniazko (%37,23) eta euskarazko (%34,34) harremanak, 2,89 puntuko aldea dago bakarrik. Bi hizkuntzak erabiltzen dutela aitortutako harremanei dagokienez, zalantzan gelditzen da zenbaiteraino diren benetan harreman elebidunak eta gazteek harreman elebiduntzat zer ulertzen duten. Egia esan harreman-kopuru handi samarra dela dirudi harreman elebidunen kopurua.

**13.** Idatzi hurrengo lerroetan, 11. galderan eman duzun erantzuna argitzeko bururatzen zaizun guztia.

Galdera honetan ez dira erantzun asko jaso baina jaso direnetatik hona hemen gazteek familiako kideen eta lagunen euskararekiko interesen inguruan galdetu zaiena argitzeko idatzi dutena:

- Nahikoa parekatuta dago lagunek interes handia dutela dioten gazte-kopurua eta interesik ez dutela dioena.
- Etxekoek, oro har, interes handia dutela diote gazteek. Badaude, hala ere, etxean interesik ez dagoela dioten gazteak.
- Gazte dezentek erantzun du interes handia duela.
- Euskararekiko "gorrotoa" ere azaltzen da hainbat gaztetan.
- Badira erantzun bitxiak ere, hala nola: "Euskaraz ikastera behartuta gaude"; "Gaztelaniarekin oso ondo konpontzen gara"; "Gazteak ez gara ezerekin bustitzen"; "Nire gurasoak pozik daude nik badakidalako"; "Niri ez zait euskara gustatzen"; .....

14. Idatz ezazu lerro hauetan, ondoko galdera hauen inguruan bururatzen zaizun guztia: "Euskara zertarako?" eta "Gaztelania zertarako?"

Jaso diren 305 inkestetatik 260 inkestatan aurkitu dugu galdera honetan zertxobait idatzita. Batzuk hitz bakarrarekin erantzun diote galdera honi: "komunikatzeko". Beste batzuk, aldiz, luze aritu dira euskararen eta gaztelaniaren inguruan. Hona hemen iritzi nagusiak eta zenbait iritzi bitxi:

- Iritzi nagusia honakoa da: "Euskara Euskal Herrian/euskaldunekin hitz egiteko eta gaztelania Euskal Herritik kanpo/erdaldunekin hitz egiteko".
- Hortik aurrera gehien errepikatu diren iritziak hauek dira: "Euskara euskaldunekin eta gaztelania ez dakitenekin hitz egiteko"; "Euskara Euskal Herriko hizkuntza"; "Euskara eskolarako eta lanerako, kalean gaztelaniaz"; "Bakoitzak nahi duena erabiltzeko"; "Hemen denek jakin beharko lukete euskaraz";.....
- "Euskara baserritarrek, gaztelania beste guztiekin"
- "Euskara, hizkuntza arraro bat gordetzeko"
- "EGA ateratzeko"
- "Gaztelania erabiltzera ohituta gaude"
- "Gaztelania ez badakizu, ezin bizimodu normala eraman"
- "Zerbait eginbeharra dago euskara ez galtzeko"

### Ondorio nagusiak

- ↳ Herriko gazteek 'gaztelaniaz euskaraz baino errazago' hitz egiten dutela aitortu dute (%36,4).
- ↳ Kuadrilakoekin gainera 'gaztelaniaz errazago' egiten du gazteen %42,3k; 'euskaraz errazago' gazteen %14,8k bakarrik.
- ↳ Ikaskideekiko harremanen hizkuntza erabat aldatzen da klasean izan edo kalean izan; horrela, 'beti euskaraz' ari dira ikaskideekin klasean %29,5ek baina kalean proportzio hori %10,8ra jeisten da. Aldiz, klasean ikaskideekin 'beti gaztelaniaz' ari dira gazteen %6,9 baina kalean proportzio hori %23,6ra iristen da.
- ↳ Kuadrilako lagunekin 'beti euskaraz' gazteen %8,9k bakarrik egiten du eta 'beti gaztelaniaz', berriz, %28,9k.
- ↳ 'Betik euskaraz' egiten den jarduera nagusia 'telefonoa erantzun' da (%51,1). 'Betik gaztelaniaz' egiten den jarduera nagusia 'haserrea agertu' da (%36,1).
- ↳ Gazteei euskararekiko duten interesaren inguruan galdetu zaienean, interes handia duela aitortu du %53,4k. Batere interesik ez duela esan du %2,6k.
- ↳ Gazteen ustetan inguruko jendeak euskararekiko duen interesa nolakoa den galdetzean, interes gehien amek dutela esan du gazteen %41,3k. Kuadrilako laguneren interesa ere handia dela uste du gazteen %36,7k.
- ↳ Herriko gazteen artean euskararen erabilera urria bada ere, besteren artean, hauxe da iritzi nagusia: "Euskara Euskal Herrian/ /euskaldunekin hitz egiteko eta gaztelania Euskal Herritik kanpo/erdaldunekin hitz egiteko".

## 4. KOKAPEN TEORIKOA

### 4.1. Aisia

Hasteko, aisialdiaren definizioa zehaztu beharko dugu. Zer da aisialdia? Aisialdiaz ari garenean, zertaz ari gara?

Josep M<sup>a</sup> Puig eta Jaume Trillas katalanek proposatu duten definizioa izan daiteke egokiena: "aisia denbora libre da baina denbora horretan nagusitzen diren jarrerak aukeraketa autonomia, burutzapen libre eta gozamina, atsedena eta dibertimenduarekin lotuta dauden behar pertsonalak asetzeari". Hau da:

|   |
|---|
| Aisia = denbora libre + askatasuna + gozatu |
|---|

Denbora, bizipen subjektibo libre eta gozamenezko garapen pertsonala dira, beraz, aisia definitzeko erabili diren erreferentzia nagusiak.

Baina aisia eta aisia ulertzeko modua ez da berdina gaur eta orain dela 30 urte. Gizartea aldatuz joan den neurrian aisia ere aldatuz joan da. Ondorengo koadroak 70. urtetik hona aisiaren bilakaera jaso dugu:

|  |       |                                |                                |                                      |  |  |
|--|-------|--------------------------------|--------------------------------|--------------------------------------|--|--|
| <b>70. hamarkada</b>                       | KALEA |                                |                                | ELIZA<br>INGURUKO<br>TALDEAK         | Besteak:<br>Kirol eta<br>Kultur<br>jarduerak |  |
| <b>70. amaiera<br/>eta<br/>80. hasiera</b> | KALEA |                                | Elizako<br>Aisialdi<br>taldeak | Aisialdi<br>Talde<br>laikoak         | Besteak:<br>Kirol eta<br>Kultur<br>jarduerak |  |
| <b>80. hamarkada</b>                       | KALEA | Elizako<br>Aisialdi<br>taldeak | Aisialdi<br>Talde<br>laikoak   | Erakunde<br>Publikoak<br>ikastetxeak | Besteak:<br>Kirol eta<br>Kultur<br>jarduerak |  |
| <b>90. hamarkada</b>                       | Kalea | Betiko<br>aisialdi<br>taldeak  | Aisialdi<br>Talde<br>berriak   | Erakunde<br>Publikoak<br>Ikastetxe   | Enrpesa<br>pribatuak                         | Besteak:<br>Kirol eta<br>Kultur<br>jarduerak |



Egun, beraz, aisialdia eginbehar gabeko denbora izatetik, okupatu edota betebeharreko denbora izatera pasa da. Askotan, gainera, ez da haur eta gaztetxoek nahi dutena egiten, gurasoek nahi dutena baizik. Beraz, gizartea aldatuz joan den neurrian aisia eta aisia ulertzeko modua ere aldatuz joan da.

Horrela, azken urteotan zerbitzu enpresak eta eskaintza komertziala ugaritu egin da: kale animazioa, udalekuen kudeatzaileak, egonaldien antolatzaileak, azpiegitura finkoak, ..... Mota horretako enpresa eta elkarteek aldaketa nabarmenak bultzatu dituzte azkenaldian denbora librean, eta eskaintza nahiz eskaeraren panoraman eragin nabarmena izan dute.

Erakunde publikoek (ikastetxeak, udalak, aldundia) ere badute zeresan arlo honetan. Azken urteotan ugaritu egin da haien presentzia haur eta gaztetxoan aisialdian. Udalen kasua bereziki adierazgarria litzateke, udalak haur eta gaztetxoan egunerokotasunean presentzia nabarmena du, eta azkeneko urte hauetan udalak horretaz jabetu dira, aisialdiaren arloko zenbait ekimenen bultzatzaile bihurtuz.

#### **4.1.1. Gurasoak eta aisia.**

Zer eskatzen diote gurasoek aisialdiari? Oro har eta besteak beste, hona hemen gurasoen nahiak:

- Telebista aurreko orduak saihestu nahi dute gurasoek: telebista aurreko gelditasuna saihesteko bakarrik bada ere aisialdian bestelako jardueretan aritzea ontzat jotzen dute gurasoek.
- Kanean alferkerietan ez ibiltzea: gazteak kanean ibiltzea, non edo zertan jakin gabe ez da gurasoen gustoko. Aldiz, antolatutako ekintzetan (aisi antolatua) parte hartuz gero, gurasoak lasaiago daude, seme-alabak non eta zertan ari diren badakitelako.
- Aisialdiari probetxua atera nahi diote gurasoek: gazteek denbora librean ongi igarotzea bai baina zerbait ikasiz gero hobe.

- Jarduera desberdinak proba ditzatela haur eta gazteek.
- Haur eta gazteek zeregina izan dezatela nahi dute gurasoek: antolatutako aisialdiko jardueretan dauden bitartean, haur eta gazteak zainduta eta kontrolpean dauden neurrian, seguru daudela sentitzen dute gurasoek.
- Azkenik, nola ez, haurra gustura ibiltzea nahi dute gurasoek.

Bestalde, ezin dugu lan honetan ahaztu gurasoen aldetik eskari bat badagoela erakunde publikoei zuzendua. Hiru ardatzetan zehazten da eskari hori:

1. Erakunde publikoak suspertzaile gisa aritu beharko lukeela uste dute gurasoek.
2. Baliabideak eskaini beharko lituzke gainera eta horien artean ekipamendu finkoaren beharra azpimarratzen da.
3. Azkenik, 12 urtetik gorako gazteen aisialdian hutsune nabarmena dagoela eta erakunde publikoak horri aurre egin behar diola uste dute.

#### **4.1.2. Gazteak eta aisia.**

Zer eskatzen diote gazteek aisialdiari? Gazteek, eta batik bat, gure lan honetan aztergai ditugun gaztetxoek (12-16 urte bitarteko gazteek) honakoa nahi dute:

- Dibertitzea eta ondo pasatzea.
- Lagunekin egotea.
- Jendea ezagutzea.
- Irteerak egitea: toki eta inguru berriak ezagutzea.

Atal hau bukatzeko ezin dugu aipatu gabe utzi hainbat egilek, Gipuzkoako Foru Diputazioak eskatuta, haur eta nerabeen aisialdi antolatuaren inguruan egin duten ikerketaren ondorioetako bat:

12-16 urte bitarteko gazteentzat aisi-eskaintza urria dagoela. Adin-tarte horretarako hauek dira behar nagusiak: lokalak, bilguneak (modu partehartzailean antolatuak) eta dinamizatzaileak.

## 4.2. Gazteak eta Euskara.

Atal hau "Gazteak eta euskara" izenburua du eta horren inguruan asko idatzi da azken urteotan. Gure lanerako han eta hemen (txostenak, liburuak, ikerlanak,...) jaso dugun interesgarriena ekarriko dugu hona.

Hasieran esan dugu ez ditugula propio 12-16 urte bitarteko gazteen euskararen inguruko datuak. Euskararen ezagutza suposatuta diegu guztiei, denak D ereduan eskolaratuta daudelako baina ez ditugu adin-tarte horretako gazteen euskararen erabileraren datu zehatzik.

### Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak

1991. urtean eginiko I. Soziolinguistikazko Inkestan euskararen erabileran eragina duten faktoreen azterketa sakona egin zen, etxeko, laneko eta lagunekiko erabilera erreferentziaz hartuz. Ondoren, 1996an egin zen II. Soziolinguistikazko Inkestak berretsi egin zituen 1991.ean ateratako ondorioak.

Euskararen erabileran eragina duten faktore nagusiak bi dira:

- Bata, sozioestruturala, hau da, harreman-sareko euskaldunen dentsitatea, esparru soziolinguistikoarekin zerikusi handia duena.
- Bestea, psikolinguistikoa, hau da, hizkuntza-gaitasun erlatiboa, edo, bestela esanda, euskaraz edo gaztelaniaz moldatzeko erraztasun handiagoa edo txikiagoa izatea (lehen hizkuntzarekin zerikusia duena).

Joxe Manuel Odriozolak (1995) eta Olatz Olasok (2001) ere euskararen erabilera aztertu dute. Horrela, Olasok euskararen erabileraren gainean osatzen duen azalpen-ereduak hiru dimentsio hartzen ditu bere baitan:

- norbanakoa: hizkuntza gaitasun erlatibo handia → erabilerarako motibazioa.
- Hiztun komunitatearen harreman sareak: aldeko baldintza demolinguistikoa → beste euskaldunekiko harreman sareak.

- Gizartearen egitura: euskara erabiltzeko ageriko onarpena gizarte talde eta erakundeen aldetik → hizkuntzaren gizarte ospea (erabilgarria, balio sinbolikoa,...)

Odriozolaren hitzetan hiru dimentsiook maila subjektiboa, maila funtzionala eta maila estrukturala bezala agertzen dira.

Hiru elementuok, bestalde, Txepetxek (Sanchez Carrión, 1991) hizkuntza prozesuan bereizten eta harremanetan jartzen dituenak dira: gaitasuna, motibazioa eta erabilera.

Hizkuntza gaitasuna da gizabanakoak hizkuntza baten hiztuna izan ahal izateko bete behar duen lehenengo baldintza. Bestalde, hizkuntza gaitasunarekin batera, hizkuntza komunitateko kideen aldetik hizkuntza hori erabiltzeko motibazioak daude. Hizkuntza gaitasuna banakakoaren ezaugarria da, eta erabilera, aldiz, pertsonen arteko harremanei dagokie. Harreman horiek gizarte egoera batzuen baitan sortuko dira: familian, eskolan, lantegian, lagunartekoan, aisialdian,... Baina horretarako hainbat baldintza bete beharko dira: solaskideak euskaraz jakitea; jakinda ere euskaraz egin nahi izatea; hitz egiten dutenak solaskideek euskaraz badakitela jakitea,...

Egoera horien azpian komunitatea dago eta egile asko dira komunitatearen ideia azpimarratu dutenak:

Txepetx: "Hizkuntza komunitatea hiztuna, hizkuntza eta gizartea lortzen dituen unitate soziala da."

Fishman: "Hizkuntza komunitatea beharrezkoa da hiztun-herri gisa bizirik jarraitu nahi bada. Euskal arnaguneak mantendu, babestu, indartu eta, ahal den neurrian, zabaldu behar dira." (euskaldunok euskaldunekin eguneroko berba-egikeran euskaraz jardun ahal izateko guneak ziurtatu behar ditugula dio).

## Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara

1993an Etorkizuna aurreikusten izeneko azterlana egin zen lehen aldiz Euskal Autonomia Erkidegoan. 1998an Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Soziologia 2 Saileko ikerlari batzuk, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Hizkuntza Normalizaziorako Zerbitzuko zuzendaritzak eta Iparraldeko Euskal Kultur Erakundeak egoki eta interesgarri iritzi zioten aipatutako azterlana berriro egiteari baina euskararen egungo lurralde osoari erreparatuz.

Horrela, ikerketa hori bideratzeko ikastetxeak erabili dira eta bi metodologia garatu dira: kualitatiboa (eztabaida-taldeak) eta kuantitatiboa (inkesta).

Ikerketan 13-14 urte bitarteko gaztetxoek iritzi eta jarrerak jaso dira eta horiek gure herriko gazteei aplikagarriak direla uste dugu. Beraz, ikerketa horrek eman dituen datu interesgarrienak jasoko ditugu hemen.

⇒ Euskararekiko iritziak

- Euskal Autonomia Erkidegoko gaztetxo gehienek (%56) uste dute ez dagoela Euskak Kulturarik euskararik gabe.
- %59ak uste du umeez euskara ikastea behar-beharrezkoa dela.
- Adierazgarria da, halaber, EAEko gaztetxoek %50ek euskaraz hitz egiteko toki eta ekintza gehiago izatea gustatuko litzaiekeela baieztatzea.
- Benetako euskalduna izateko euskaraz zertan jakin beharrik ez dagoela baieztapenaren alde atera da EAEko gaztetxoek %39a. Baieztapen hau ez da oso itxaropentsua euskararen berreskurapenerako. Honela dio gai horren inguruan Joshua A. Fishman hizkuntz soziologoak: "komunitate bateko kideek horren partaide izateko bertako hizkuntzaren beharrik ez badute sentitzen, hizkuntza horren berreskurapenerako zailtasunak areagotu egingo dira".
- Ondo dago euskaldunak beraien artean euskaraz egitea, nahiz eta aurrean dauden den-denek ez jakin baieztapenaren alde dago EAEko gaztetxoek %39a.
- Denok erdaraz dakigunez, ez dago euskaraz jakin beharrik baieztapenaren aurka dago EAEko gaztetxoek %68a.

⇒ Euskararekiko jarrerak

- Euskal Autonomia Erkidegoan, euskara hizkuntza garrantzitsua dela eta lanerako balio duela aipatzen dutenak indar berdinarekin nagusitzen dira.
- D ereduko ikasleek, euskara hizkuntza baliotsutzat hartzeaz gain, euskarak euskaldun egiten gaituela eta Euskal Herrian erabilgarria dela aipatzen dute gehien.
- Ama hizkuntza ezberdina izan duten gaztetxoek arteko alderik nabarmenenak hala ere honako hauek dira: gurasoengandik zenbat eta euskara hutsezko eredu jaso, orduan eta gehiago lotzen dute euskara euskaldun izaerarekin, euskarak euskaldun egiten gaituela esanez. Zenbat eta euskara gutxiago, orduan eta sarriago aipatzen da euskarak duen baliagarritasuna etorkizunean lana topatzeko.
- Euskarak euskaldun egiten gaituela, euskara gure hizkuntza dela edo euskara Euskal Herriaren izaera eta oinarria dela adierazten duten gaztetxoek %62k, %55ek eta %52k, euskara aukeratzen dute bere lehen hizkuntza modura.

## Ondorioak

Aipatu ikerlanetik guretzat interesgarriak diren hainbat ondorio ekarriko ditugu hona:

- ↳ Irakaskuntzari esker gaztetxoen euskarazko gaitasunak gora egin du nabarmen baina gaitasun horrek ez du islada eskolatik kanpo.
- ↳ Euskal Autonomia Erkidegoan euskararekiko interes handia azaldu dute gaztetxoek.
- ↳ Euskal herrian, oro har, euskararen erabilera bultzatzeko nerabe euskaldunek gizartean topatzen dituzten baldintzak oso eskasak dira.
- ↳ Gaztetxo euskaldunen heren batek ez du inongo harreman-sare euskaldunik eguneroko harremanetan.
- ↳ Erabilera indartu nahi bada, ezinbestekoa da gaztetxo horiek euskaraz bilduko dituzten guneak sortzea.
- ↳ Nerabeak euskalduntzeko irakaskuntzan egin diren ahaleginak jarraipena behar dute izan bereziki, gizarte egitura euskaldunduz.



## **5. GAZTE TXOKOA PROIEKTUA.**

Orain dela pare bat urte Legazpiko udalak herriko hainbat gurasok aurkeztutako eskaria aintzakotzat hartu eta gazteei gune bat eskaintzeko aukera aztertzeari ekin zion. Horretan dihardu azkenengo urtean eta atal honetan horren berri emango dugu.

### **5.1. Proiektuaren eragileak.**

Herriko gurasoak kezkatuta azaldu dira batik bat 12-16 urte bitarteko gaztetxoek aisialdirako eskaintza urria dutelako herrian. Kirolean ematen dituzten orduak kenduta (kirola egiten dutenek) herrian gaztetxo horiek ez dute ezer ez: ekintzak eskasak eta puntualak dira asteburuetan, zinea karestia da, tabernetan ezin dira sartu,... ondorioz, orduak eta orduak ematen dituzte kalean zer egin eta non sartu jakin gabe.

Gurasoek aurkeztu duten idatzian beste puntu interesgarria azaltzen da: prebentzioa. Gurasoak kezkatu daude gazteak geroz eta lehenago hasten direlako alkohola edo bestelako drogak hartzen eta aisialdiaz gozatzeko geroz eta gazteago herritik alde egiten dutelako (Zumarragara batik bat). Guzti hori saihesteko gazteei topagunea eskaintzea proposatu diote udalari.

Eskaria udaletxean jaso eta gaiaren inguruan zer esan izan dezaketen batzordeetako batzordeburu eta teknikariak bildu ziren: Gazteria eta Hezkuntza, Kultura, Gizarte Zerbitzuak eta Euskara.

Udalak eskaria aintzakotzat hartu eta proiektu bat garatzea erabaki zuen.

## 5.2. Helburuak.

### 5.2.1. Helburu nagusia.

⇒ Gaztetxoei aisialdirako alternatiba parte-hartzailea eskaintzea.

### 5.2.2. Berariazko helburuak.

Helburu nagusiaz gain, proiektuan parte hartzen duten batzorde desberdinek berariazko helburuak ezarri dituzte. Hona hemen helburu horiek:

#### **Gazteria eta Hezkuntza:**

- ⇒ 12-16 urte bitarteko gazteen aisialdian herrian dagoen hutsunea betetzea.
- ⇒ Topaketarako leku bat eskaintzea, Legazpiko gazteentzat erreferentzia eta harremanetarako gunea izango dena.
- ⇒ Denbora librerako eskariak jasotzea eta horiei dagozkien erantzunei laguntza ematea.
- ⇒ Denbora librerako programa bat garatzea, proiektuko protagonisten interesa bultzatuz.
- ⇒ Partaidetza eta autoeraketa prozesuak garatzea. Parte hartuko duten gazteen artean elkarkidetzarako joerak bultzatzea.
- ⇒ Aniztasunari, elkartasunari, kolektibitate sentipenari, kritikari eta abarri buruzko jarrerak eta baloreak garatzea.

#### **Kultura:**

- ⇒ Gure kultura ezagutzea eta errespetatzea.
- ⇒ Legazpiko gizarte-dinamikan gazteak inplika daitezela sustatzea eta horretarako kultura, jai, gizarte, kirol eta abarreko prozesuetan parte hartzera bultzatzea.
- ⇒ Parte-hartze horrekin gaztetxoak, beraien zaletasunen arabera, etorkizunean herriko kultur taldeetan sar daitezela lortu nahi da, modu horretan herriko hainbat elkartetan erreleboarekin dagoen arazoari irtenbidea emanez.

### **Gizarte Zerbitzuak:**

- ⇒ Osasunaren heziketa eta drogamenpekotasunaren prebentzio ildoak eta programak sustatzea.
- ⇒ Gazte jendearen autonomia lantzea eta baita berdinen taldean integratzea ere.
- ⇒ Giza-jarrerak, baloreak eta abileziak sustatzea, komunikaziorako, erantzukizunetarako, heldutasunerako eta autoestima positiborako.

### **Euskara:**

- ⇒ Herriko adin-tarte horretako gaztetxoak D ereduan eskolaratuta daudenez, gune euskalduna sortzea.
- ⇒ Gazteen arteko euskararen erabilera bultzatzea.
- ⇒ Euskara/eskola binomioa haustea eta aisialdia euskararekin identifikatzea.
- ⇒ Gazteen inplikazioa bilatzea euskararen inguruan egiten diren jardueretan.
- ⇒ Herriko gazte-talde desberdinen arteko harremanak euskalduntzea.

## **5.3. Gestioa eta funtzionamendua.**

### **5.3.1. Kudeaketa.**

Lokala udalarena izanik, lokalaren kudeaketa azpikontrataturako aisialdi-enpresa edo talde bati eskaintzea proposatzen da. Hauek izango lirateke enpresa horren egitekoak:

- Begirale-talde bat eskainiko dio proiektuari. Begirale horietako bat lokalean bertan emango ditu orduak lokala irekita dagoen bitartean. Begirale-taldeak antolatuko diren ekintzak bideratuko ditu.
- Lokala ireki eta itxi.
- Lokala baldintza egokian mantendu: gauzak bere tokian ordenatuta, gutxieneko garbitasun-baldintzak mantentzea, gazteen arteko giro ona zaintzea, edozein gai kezkarriaren berri zuzendaritza-taldeari ematea,.....

- Lokalean burutuko diren urteko ekintzen ardura: dinamizazio-lana, bultzatzailea, zirikatzailea, idea-emailea,....
- Gazteek talde desberdinak antola ditzakete eta topaguneko begiraleekin batera ekintzak asmatu, antolatu, burutu,...
- Topagunean jasoko diren gazteen asmoak eta proposamenak jaso eta zuzendaritza-taldean aurkeztu. Bitartekari lana.
- Edozein arazoren berri zuzendaritza-taldeari eman.

### **5.3.2. Funtzionamendua.**

Zaila da funtzionamenduarekin asmatzea. Gazteentzako den topagunean gazteekin kontatu beharra dago ezinbestean eta gainera gazte horien adin gatazkatsua kontuan izanik tentu handiarekin ibili beharra dago. Siadecoren inkestan "udaletxeak gutxienezko baldintzak ezartzearen" inguruan iritzia galdetu denean erdiek baino gehiagok (%53,6) oso ongi edo nahikoa ongi ikusten dute arauak jartze hori baina kontuan izan beharko dugu beste erdiak erdipurdi, gaizki edo oso gaizki erantzun dutela.

Garbi dago adin-tarte hori zaila dela: inposatutako gauzen aurka daude, sistemaren aurka doaz eta mesprezuz ikusten dute helduengandik datorren edozer gauza (agindu, arau, baldintza,...)

Beraz, gure lehenengo lana gazte horiek irabaztea izan behar du. Gauza erakargarria aurkeztu behar diegu, parte hartzera animatuz, mesfidantzak saihestuz, haien ekarpenak aintzakotzat hartuz, haien iritziak baloratuz, ... etab.

Funtzionamenduaz ari garenean ezinbestekoa da barne-araudia izatea. Barne-araudi horretan jasoko da:

- topagunearen helburuak
- lokala erabiltzeko arauak
- lokalaren ordutegia
- erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak
- organo desberdinak eta haien eginkizunak
- arauhausteak eta santzioak
- .....

Gainera, nahitaezkoa izango da funtzionamenduaz arduratuko den zuzendaritza-taldea sortzea. Talde horretan udal-teknikarien, aisialdi-enpresaren eta gazteen ordezkariak hartuko lukete parte. Ez da gurasoen parte-hartzea aurreikusten eta horrek bere azalpena du: 12-16 urte bitarteko gazteek ez lukete begi onez joko gurasoen parte-hartzea, kontrolaren itxura hartuko liokete topaguneari. Bestalde, proiektu hau guraso-talde baten eskariak bultzaturikoa izanik gurasoek ere horren berri izan nahiko dute eta ulergarria da hori ere. Gurasoekin beraz beste modu batera joka daiteke. Informazioa jasoko dute: topagunearen sorrera, zer den eta zertarako (helburuak), funtzionamendua, urteko ekintzak, ordutegia,.... Horrezaz gain, beraien iritziak, iradokizunak, ekarpenak,... jasotzea interesgarria eta aberatsa da guztiontzat. Hori dena bideratu beharra dago eta horretarako herriko ikastetxeetan dauden guraso elkarteetatik baliatu gaituzke. Beste bide bat izan daiteke ikastetxeetan mailaka egiten diren gurasoen bilerak erabiltzea informazioa zabaltzeko eta iritziak jasotzeko.

Bukatzeko, hona hemen zuzendaritza-taldearen eginkizunak:

- Lokalaren funtzionamenduaz eta urteko programazioaz arduratuko da.
- Gazte Txokoaren barne-araudia egin eta onartuko du. Bestalde, araudia beteko dela zainduko du.
- Diru-kontuak eramango ditu.
- Lokalaren martxa ona zainduko du, sor daitezkeen arazoei konponbidea emanaz.
- Urteko programazioa egingo du eta programazio horretan aurreikusitakoa garatu, gauzatu eta kontrolatu.
- Urteko ekintzen balorazioa egingo du.
- Proiektuaren jarraipena eramango du.

#### 5.4. Euskararen erabilera sustatzeko oinarriak.

Esan bezala, Euskara Batzordearen helburu nagusia topagunea gune euskalduna izan dadila lortzea da. Horra hor erronka nagusia. Hori lortzeko oinarri teorikoak, teknikoak, metodologikoak eta programatikoak aztertuko ditugu segidan.

##### 5.4.1. Oinarri teorikoak.

Gure helburua lortzeko baliagarriak zaizkigun oinarri teoriko desberdinak aipatuko ditugu.

##### Joshua Fishman

Lehenbizi Joshua Fishmanen teoria ekarriko dugu hona. Fishmanek RLS edo Reversing Language Shift dietu dio bere hurbilpen teorikoari. RLS akronimoaren euskal ordaina HINBE da: **H**izkuntza **I**Ndar**B**erritzea.

Gero eta larriago dabilen hizkuntza ahulak hiztun gehiago izan ditzala eta hiztun horiek gero eta jardungune, harreman-sare eta egoera ugariagoetan hizkuntza horretan egin dezatela: hori da HINBE (RLS)ren jomuga.

Bestalde, badakigu hizkuntzen mintzaldatzea eten-urratze edo dislokazio-mota jakinek sortzen dutela: dislokazio fisikoak, demografikoak, sozialak eta kulturalak. Fishmanek soziokulturazko dislokazioaren intentsitatea neur daitekeela dio **B**elaun **A**rteko **E**tenaren **N**eurria (BAEN) izeneko eskala erabiliz.

Eskala horrek 8 maila ditu, hizkuntzaren egoera hoberenetik okerrenera. Guk gure lan honetarako 6. mailari erreparatuko diogu. Honela dio Fishmanek 6. mailan: "euskarazko gizarte hurbilari eutsi eta, ahal bada, euskal arnaguneak sortu behar ditugula".

Erdarazko mintzajardunetik euskarazkora pasa behar dugu belaunaldi gaztea eta hori lortzeko euskal arnaguneak eskaini behar dizkiegu.

Zenbat eta euskarazko arnaguneak ugariago eta aktiboago izan, orduan eta arrazago izango da euskaraz erdipurdika moldatzen diren gazte horiek ere beren hizkuntza gaitasuna sendotu eta zabaltzea.

"Hizkuntza txikiek beren arnaguneei eutsi behar diete beraz, ahal duten neurrian, hiztun-herri gisa bizirik jarraitu nahi badute" dio Fishmanek.

Euskal arnaguneak mantendu, babestu, indartu eta, ahal den neurrian, zabaldu egin behar ditugu. Euskaldunok euskaldunekin eguneroko berba-egikeran euskaraz jardun ahal izateko guneak segurtatu behar ditugu.

#### Jose Maria Sanchez Carrion, "Txepetx"

Soziolinguistika arloan oso ezaguna den egile honen helburua etorkizun linguistiko orekatua irudikatzen duen teoria garatzea izan da.

Ez dugu hemen bere teoria osoa azalduko, benetan interesgarria den arren, ez delako hori lan honen helburua. Aldiz, bere teoritik gure lan honetarako baliagarriena ekarriko dugu hona.

Hasteko, Txepetxek hizkuntzaren iraupenaren inguruan esaten duena aipatzea garrantzitsua dela uste dugu:

"La defensa del propio idioma, sobre todo si éste es minoritario, o no goza de las garantías de un estado (y a veces aun a pesar de esas garantías), está íntimamente ligada a la existencia de un grupo consistente de hablantes que desde ese idioma tenga una concepción cultural propia de ellos mismos y la proyecten hacia la comunidad idiomática."

Normalizazioaren helburua euskararen gaitasuna optimizatzea da, garai historiko bakoitzak eskatzen duenaren parera eramanez. Hori lortzeko bitartekoak motibazioa, ezagutza eta erabilpena areagotzea dira.

#### Berdintasunaren diskurtsoa

Hizkuntza gutxitu batek bere normalizazio prozesuan arrakasta lortu ahal izateko, hizkuntza nagusiak ez duen funtzio kualitatibo berri bat eskuratu behar du:

"... cuando lo que se intenta es normalizar un idioma que hemos recogido en fase "minoritaria de minorización" sólo sería posible tener éxito dándole al idioma minoritario una función (la más importante del nuevo período histórico) que no tuviera en cambio el idioma mayoritario."

Legazpin, funtzio hori hezkuntzan aurkitzen dugu, 16 urtetik beherako denek D ereduan eskolaratuta baitaude, gure ikastetxeetan ez dugu eta A eredurik.

Hori kontuan izanik hona hemen zer dioen Txepetxek: "Normalizar las lenguas minorizadas ... es posible ... si esas lenguas captan para sí la función de mayor impacto de este tiempo histórico y la protagonizan..."

Beraz gure kasuan aurrerapausu ikaragarria izango litzateke gaur egun gure ustez gazteen artean funtzio nagusienetako bat den aisialdia esparru euskalduna izatea lortuko bagenu.

#### **5.4.2. Oinarri teknikoak.**

Atal honetan joan den 1999ko abenduaren 10ean Legebiltzarrak onartu zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia azalduko dugu.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, agirian bertan irakur daitekeenez, hizkuntzaren normalizazioa eskuratzen jarraitzeko plan estrategikoa da, hizkuntza-politika egiten diharduten herri-aginteei euren jarduna bideratzeko lagunduko dien oinarrizko tresna.

Plan Nagusian hiru ardatz nagusi aztertu dira:

- euskararen geroratzea.
- euskararen erabilera-eremuak.
- komunikabideak ete kulturgintza.

Gu hemen, Gazte Txokoa proiektuan, aisia dugu aztergai eta aisialdia euskararen erabilera-eremuetako bat da.

Plan horretan, halaber, indarguneak eta ahuleziak aztertzen dira. Indarguneak eta ahuleziak ezagutzea ezinbestekoa da lehenengoak gure alde erabiltzeko eta bigarrenei aurre egiteko.

Gure herrian 12-16 urte bitarteko gaztetxoek aisialdiaren indarguneak eta ahuleziak aztertuz gero, horrelako zerbait aurkituko genuke:



| Indarguneak   | Ahuleziak   |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gaztetxoen euskarazko gaitasunaren gorakada.</li> <li>- Euskararen ondorengotara-tze sendoa irakaskuntzan. Denak D ereduan.</li> <li>- Herrian dauden aisialdi-taldeak (2) euskaraz eskaintzen dituzte euren jarduerak.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gaztetxoen euskarazko gaitasunak ez du islada eskolatik kanpo.</li> <li>- Irakaskuntzan euskararen ondorengotaratzea ziurtatuta dagoen arren, erabilerarako jauziak huts egiten du.</li> <li>- Aisialdian erdarazko aukera ugariagoa da: zinea, bideoak,...</li> </ul> |

Aipatu indarguneekin ahuleziei aurre egin behar diegu. Aisialdiak euskaraz etorri behar du gure herrian gaztetxoek euskarazko gaitasuna areagotzeko eta gaitasunetik erabilerara jauzi egiteko.

#### 5.4.3. Oinarri metodologikoak.

Topagunea gune euskalduna izan dadin oinarri teorikoak eta teknikoak baditugu. Oraingoan oinarri metodologikoak finkatzea ezinbestekoa da gure helburua lortze aldera.

Horregatik zenbait irizpide jarri beharra dagoela uste dugu.

Topaguneaz arduratuko den aisialdi-elkarte edo taldea euskaraz jardun beharko du ezinbestean eta begirale euskaldunak jarriko ditu proiektua aurrera eramateko. Bestalde, begiraleek ere hainbat irizpide bete beharko dituzte bere eguneroko eginbeharretan, adibidez:

- Ahoz nahiz idatziz euskara erabiliko dute eguneroko jardunean.
- Lehen hitza euskaraz egingo diete bertaratutako guztiei.
- Gaztelaniaz ari diren gazte-taldeengan eragiteko teknikak garatuko dituzte gaztelanitik euskarara jauzia egin dezaten bultzatuz.
- Dinamizazio-lanetan lehentasunezko puntua izango da euskararen erabilera sustatzea gazteen artean.

#### **5.4.4. Oinarri programatikoak.**

Gazte Txokoa gazteentzako topalekua izateaz gain, gazteekin batera urtean zehar ekintza desberdinak egiteko erabiliko dugu. Ekintza horiek 5.2. puntuaz azaldu diren helburuak betetzeko aitzakia izango dira. Beraz, ekintzak edozein motatakoak izan daitezke baina gu hemen, lan honetan, gure helburua betetzeko, besteren artean, proposa daitezkeen ekintzak azalduko ditugu.

##### Motibazio-saioak

Elkarte desberdinak daude horrelako motibazio-saioak eskaintzen dituztenak:

- "Maita nazazu gutxiago, goza nazazu gehiago" saioak Ttakun Kultur Elkartearen eskutik. Helburuak: 1. Euskararen inguruan hausnarketa bultzatzea eta 2. Gazteen inplikazioa bilatzea euskararen inguruan egiten diren jardueretan.

Bi orduko lau saio dira.

- Arrasateko Txatxilipurdi elkarteak ere zenbait motibazio-saio eskaintzen ditu:

. "Gazteen hizkuntza jarrerentzako Txertoak": gazteen artean hizkuntza jarrerak aldatzeko teknikak. Begiraleei zuzendutako ikastaroa.

. "Gazteak eta motibazioa", gazteen artean euskaraz bizitzeko motibazio-saioak. Tailer gisa antolatutako ikastaroa.

- Motibazioa ere testuliburuetan aurkitzen dugu. Horrela, Ibaizabal argitaletxeak eta Erein argitaletxeak ikas-unitate desberdinak landu dituzte DBHko ikasleen artean euskararen erabilera bultzatzeaz gain motibazioa lantzeko.

##### Gazte-hizkera lantzeko saioak

Honen inguruan aritzeko ere pertsona ezagunekin kontatzeko aukera dugu, hala nola, Kike Amonarriz eta Asisko Urmeneta komikigilea.

#### Kuadrillategi egitasmoa.

Kuadrillategi, Lasarte-Oria udalerrian, 1997tik 2002ra 15-20 urte bitarteko gazte lagunarteak euskaraz bizitzeko helburuz burutu den ekintza-ikerketak egitasmoa izan da.

Kuadrillategi egitasmoa DBH-3 eta DBH-4 mailako ikasleei dago zuzenduta. 2 urteko iraupena du eta helburua koadrilak kuadrillategi programaren barruan euskaraz aritzea da.

#### Bertsolaritza.

Herrian badago, "Berto Olariak" elkarteak eta euskara aberasteko eta komunikatzeko gaitasun handiagoa lortzeko bertsolaritzaren inguruan hainbat saio gazteei eskaintzeko prest egongo litzateke.

#### Euskara egokia eta zuzena.

Herriko guraso eta irakasle askoren kezka da eta bolo-bolo entzuten dugu gure gazteek gaizki hitz egiten dutela euskaraz. Erdarakadak eta akats gramatikal larriak entzutea ohikoa bihurtu zaigu. Nola egin horri aurre? Han eta hemen badaude arazo horri aurre egin nahian burutu diren egitasmoak: "Gehixao eta hobeto", akatsak zuzentzeko Bergaran, "Errakuntza ikastaroa" Leitzan IKA euskaltegiaren eskutik,...

#### **5.4.5. Topagunea.**

Topagunea diogunean, gune fisikoaz ari gara. Horrela, puntu honetan paisaje linguistikoaz egin behar dugu berba ezinbestean. Ezin dugu ukatu begiarekiko eraginak duen garrantzia eta, beraz, hizkuntza paisajea zaindu beharra dago. Gazte Txokoa izeneko gune fisikoa euskalduna izan behar du gure helburua lortze aldera. Barruko (eta kanpoko) errotulo, kartel, ohar, ... eta begi bistan dagoen guztia euskaraz jarritz, gazteei erabiliko duten gunea euskalduna dela adieraziko diegu. Guzti hori zaintzea berebiziko garrantzia du, hasiera hasieratik gazteek topagunea euskararekin eta euskara erabiltzearekin identifika dezaten.

## 5.5. Ebaluazioa.

Proiektuak etengabeko jarraipena eskatzen du. Hasierako urtea garrantzitsua da proiektuak gazteen artean arrakastatsua izatea lortu behar baitugu; bestalde, proiektuaren jarraipena eta martxa ona, gazteen parte-hartzean oinarrituko denez, haien onarpena izatea ezinbestekoa da. Beraz, hasieran ahalegin berezia egin beharko du udalak proiektua ondo joan dadin. Lehenengo urtean gazteen inplikazioa lortu eta segurtatzen bada, proiektuak aurrera egingo du; ondorioz, etengabe zaindu beharko da proiektuaren martxa ona eta gazteen parte-hartze eta inplikazioa, modu horretan bakarrik lortuko baita urte bukaerako balantzea positiboa izatea eta proiektuaren etorkizuna ziurtatzea.

### Hausnarketarako oharra

Lan honetan, gazteek aisialdiaren eta euskararen inguruan duten iritziak jaso ditugu. Horrezaz gain, aisiaren eta euskararen inguruan aritu gara eta azkenik, proiektuaz hitz egin dugu eta euskararen erabilera sustatzeko oinarriak aztertu ditugu. Lanaren helburua, bestalde, sortu nahi den Gazte Txokoa gune euskalduna izan dadila proposatzea da.

Baina nire kezka azalduz, hausnarketarako ohar hau utzi nahi dut:

*"Udalak topagunea euskalduna izatea erabakiz gero eta hortik aurrerakoa (proiektua, bilerak,...) naturaltasunez euskaraz burutuz gero, ez al genuke, agian, Gazte Txokoa bera ere naturaltasunez gune euskalduna sortzea lortuko?"*

## 6. ERANSKINAK

**EUSKARAREN INGURUKO  
INKESTA**

# Inkestaren aurkezpena

- Galdesorta hau Legazpiko Udalak gaztetxoek bizi duten hizkuntzazko egoera ezagutzeko ikerketa baten parte da.
- Ez da test edo azterketa bat, hortaz, ez dago erantzun zuzenik eta erantzun okerririk; zure iritzia da jakin nahi duguna.
- Hori bai, erantzunak ondo pentsatu eta zure benetako iritzia ematea oso garrantzitsua da.
- Ez dizugu ez izenik ez helbiderik eskatuko, beraz, isilpean geratuko dira zure iritzi guztiak.
- Aurretik eskertzen dizugu zure parte hartzea eta galdesorta hau interesgarria eta atsegina gertatzea espero dugu.

## Oharrak:

- 1) Irakur ezazu galdera zalantzarik gabe ulertu arte. Zerbait ez ulertzekotan altxa eskua eta galdetu.
- 2) Irakur itzazu erantzuteko aukera guztiak eta pentsa zure iritziarekin bat datorrena zein den.
- 3) Marka ezazu BOROBIL batekin eman nahi duzun erantzunari dagokion zenbakia.

## Galdesorta

### 1. Maila:

DBH 1

DBH 2

DBH 3

DBH 4

### Aldagai soziodemografikoak:

### 2. Sexua:

Emakumezkoa 1

Gizonezkoa 2

### Hizkuntzazko gaitasuna:

### 3. Orokorrean, zein hizkuntzatan duzu erraztasun handiagoa?

|              | Euskaraz errazago | Gaztelaniaz errazago | Bietan berdintsu | Ez dakit euskaraz |
|--------------|-------------------|----------------------|------------------|-------------------|
| Ulertzeko    | 1                 | 2                    | 3                | 4                 |
| Hitz egiteko | 1                 | 2                    | 3                | 4                 |
| Irakurtzeko  | 1                 | 2                    | 3                | 4                 |
| Idazteko     | 1                 | 2                    | 3                | 4                 |

4. Orokorrean, zein hizkuntzatan hitz egiten duzu errazago egoera/toki hauetan?

|                | Euskaraz errazago | Bietan berdin | Gaztelaniaz errazago | Ez dut euskaraz egiten |
|----------------|-------------------|---------------|----------------------|------------------------|
| Ikaskideekin   | 1                 | 2             | 3                    | 4                      |
| Kuadrilakoekin | 1                 | 2             | 3                    | 4                      |
| Etxean         | 1                 | 2             | 3                    | 4                      |

**Hizkuntzen erabilera:**

5. Zein hizkuntzatan egiten duzu pertsona hauekin?

|                      | Beti euskaraz | Euskaraz gaztelaniaz Baino gehiago | Bietan berdin | Gaztelaniaz euskaraz Baino gehiago | Beti gaztelaniaz | Beste Kasuak |
|----------------------|---------------|------------------------------------|---------------|------------------------------------|------------------|--------------|
| Aitarekin            | 1             | 2                                  | 3             | 4                                  | 5                | 6            |
| Amarekin             | 1             | 2                                  | 3             | 4                                  | 5                | 6            |
| Anai-arrebekin       | 1             | 2                                  | 3             | 4                                  | 5                | 6            |
| Aitona-amonekin      | 1             | 2                                  | 3             | 4                                  | 5                | 6            |
| Ikaskideekin klasean | 1             | 2                                  | 3             | 4                                  | 5                | 6            |
| Ikaskideekin kalean  | 1             | 2                                  | 3             | 4                                  | 5                | 6            |
| Kuadrilako lagunekin | 1             | 2                                  | 3             | 4                                  | 5                | 6            |
| Auzoko lagunekin     | 1             | 2                                  | 3             | 4                                  | 5                | 6            |

6. Eta pentsatzeko, ze hizkuntza erabiltzen duzu?

| Beti Euskaraz | Euskaraz gaztelaniaz Baino gehiago | Bietan berdin | Gaztelaniaz euskaraz Baino gehiago | Beti gaztelaniaz |
|---------------|------------------------------------|---------------|------------------------------------|------------------|
| 1             | 2                                  | 3             | 4                                  | 5                |

7. Zeintzuk dira zure lagunik onenak? (gehienez hiru)

| Bere izena: | Bere adina: | Non egoten zara berarekin? | Zein hizkuntzatan hitz egiten duzue? |
|-------------|-------------|----------------------------|--------------------------------------|
| a).....     | a).....     | a).....                    | a).....                              |
| b).....     | b).....     | b).....                    | b).....                              |
| c).....     | c).....     | c).....                    | c).....                              |

8. Dakizun euskarak balio al dizu herriko euskaldunekin ondo komunikatzeko?

|                   | Gehienetan bai | Gehienetan ez |
|-------------------|----------------|---------------|
| Zure adinekoekin  | 1              | 2             |
| Jende helduarekin | 1              | 2             |



**9. Euskaraz hitz egiten duzunean, erdarazko esaldiak tartekatzen dituzu?**

|                                  |   |
|----------------------------------|---|
| Bai, sarritan.....               | 1 |
| Oso tarteka.....                 | 2 |
| Ez, normalean ez.....            | 3 |
| Ez dut euskaraz hitz egiten..... | 4 |

**10. Suposatuz zuk egindakoa jasoko duenak euskaraz badakiela, zein hizkuntzatan egiten dituzu jarduera hauek?**

|                          | Beti euskaraz | Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago | Bietan berdin | Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago | Beti gaztelaniaz | Ez dut hori egiten |
|--------------------------|---------------|------------------------------------|---------------|------------------------------------|------------------|--------------------|
| Eskutitz bat idatzi      | 1             | 2                                  | 3             | 4                                  | 5                | 6                  |
| Ohar bat utzi            | 1             | 2                                  | 3             | 4                                  | 5                | 6                  |
| Telefonoa erantzun       | 1             | 2                                  | 3             | 4                                  | 5                | 6                  |
| Dendan eskatu            | 1             | 2                                  | 3             | 4                                  | 5                | 6                  |
| Txistek kontatu          | 1             | 2                                  | 3             | 4                                  | 5                | 6                  |
| Haserrea agertu          | 1             | 2                                  | 3             | 4                                  | 5                | 6                  |
| Gai intimoetaz hitz egin | 1             | 2                                  | 3             | 4                                  | 5                | 6                  |
| Piropo bat bota          | 1             | 2                                  | 3             | 4                                  | 5                | 6                  |

**Hizkuntzekiko jarrerak:**

**11. Zure ustez, ondoko pertsona hauek nolako interesa dute euskararekiko?**

|                    | Handia | Nahikoa | Tartekoa | Txikia | Batere ez |
|--------------------|--------|---------|----------|--------|-----------|
| Aitak              | 1      | 2       | 3        | 4      | 5         |
| Amak               | 1      | 2       | 3        | 4      | 5         |
| Anai-arrebek       | 1      | 2       | 3        | 4      | 5         |
| Aitona-amonek      | 1      | 2       | 3        | 4      | 5         |
| Ikaskideek         | 1      | 2       | 3        | 4      | 5         |
| Kuadrilako lagunek | 1      | 2       | 3        | 4      | 5         |
| Auzoko lagunek     | 1      | 2       | 3        | 4      | 5         |

**12. Nolako interesa duzu zuk zeuk?**

| Handia | Nahikoa | Tartekoa | Txikia | Batere ez |
|--------|---------|----------|--------|-----------|
| 1      | 2       | 3        | 4      | 5         |

**13.** Idatzi hurrengo lerroetan 11. galderan eman duzun erantzuna argitzeko bururatzen zaizun guztia.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

**14.** Idatz ezazu lerro hauetan, ondoko galdera hauen inguruan bururatzen zaizun guztia: “Euskara zertarako? Eta gaztelania zertarako?”

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



## **BIBLIOGRAFIA**

## BIBLIOGRAFIA

- "Haur eta nerabeen aisialdi antolatua Gipuzkoan". Gipuzkoako Foru Aldundia.
- "Gazteei eta kulturari buruzko hausnarketa, Gipuzkoa 2001". Gipuzkoako Foru Aldundia.
- "Gazteentzako ekipamendu soziokulturalen Plangintza Gipuzkoan". Gipuzkoako Foru Aldundia.
- "Legazpin, 12-16 urte bitarteko gazteen artean denbora librearen eta gazte-txoko ekipamendu baten inguruko iritzi galdeketa". Siadeco, 2001eko maiatzak.
- "Euskararen jarraipena II. Euskal Herriko Soziolinguistikazko inkesta,1996". HPS.
- "Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara". Iñaki Martínez de Luna eta Kontxesi Berrio-Otxoa.
- "Un futuro para nuestro pasado". Sanchez Carrion "Txepetx".
- "Reversing language shift". Joshua Fishman.
- BAT Soziolinguistika aldizkaria:
  - 7/8 zk.: "Gazteak euskalduntzeko egitasmoa". EKBren administrazio saila.
  - 24 zk.: "Gazte euskaldunen lagun arteko hizkera hemen eta orain zertan den ulertzeko zenbait argibide". Imanol Esnaola.
  - 27 zk.: "Gazte donostiarren hizkuntzarekiko harremanak". N. Jausoro, I. Mnez. De Luna eta A. Dávila.
  - 40 zk.: "Euskal Herriko gaztetxoek hizkuntza egoera aztertzeke eredu orokorraren proposamena". I. Martínez de Luna.
- JAZTEN aldizkariaren 4. zenbakia. "Gazteak eta euskara". AED.
- "Gazteak eta euskara". Hik hasi. 2000.
- "Euskara Biziberritzeko Plana". E.J. Kultura Saila. 1999.